

# Izen sintagmaren eta kasuen jabenkuntza bi haur euskaldun elebakarrengan<sup>1</sup>

Juan José Zubiri Lujambio

Aurkezpen zereginetan sartu baino lehen eskerrik beroenak eman nahi nizkieke, zuzenean edo zeharka, tesi lana egiten lagundu zidaten guztiei. Lana bukatu beharren heriosuhar hartan, datuak nolabait atondu eta apailatu genituen ahalik eta modurik txukunenean azaltzeko. Beldur naiz oraingoan dakardan laburpen moduko honetan hango aje berdintsuak ez ote diren errepikatzen, han denbora beharrez eta hemen laburzurrez. Dena dela, bestearen erruak molclatu bitartean, orain aurkezten dugun hau izan dadila orenen gogopizgarri eta jakinnahiaren txingi.

## Sarrera

Eskertze legea bete ondoren eta berez lanaren prozesua deskribatzera igaro baino lehen, aipa ditzagun gaingiroki bederik zein izan diren lanaren helburu nagusiak. Azpimarratzekotan, batez ere ondoko hiru hauek azpimarratuko genituzke:

a) Haur euskaldun elebakarren datuak jasotzea. Zenbat eta haur elebakarren (eta elebidunen) datu-base handiagoa izan orduan eta azterketa sakonagoak aurkez daitezke, eta era berean, zenbat eta datu gehiago erabili eta aztertu orduan eta ondorio orokorrak eta fidagarriak lor daitezke.

b) Datuak plazaratzea. Hainbat denboran datuak bildu ostean, garrantzizkoa –eta beharrezkoa– da ezagutzera ematera, nahiz eta hala beharrez guk datuon zati bat besterik ez dugun argitara emanen oraingoaz, hain zuzen ere aztergaitzat hartu ditugun ISren eta kasuen datuak.

c) Adibide ugari eta errealak eskaintzea. Egoera eta adibide errealak ekarri nahi izan ditugu zinetako hizkuntzaren garapena nola gertatzen den azaltzeko, haur euskaldunak hitz egiten nola hasten diren eta nola hitz egiten duten ikus dadin.


Hortaz, lanaren prozesua nondik nora joan den eta zein ibilbide jarraitu duen zehazteko, diogun bi une txoil desberdinetan bana dezakegula: alde batetik datu

---

1. Lan honek MEC-en (MEC 033.130-051.3/95) laguntza jaso du, neurri batean bederen.

bilketari dagokion unea, eta beste aldetik datuen azterketari dagokiona, ondoko koadroan ikus daitekeen moduan:

*1. koadroa. Lanaren bi prozesu nagusiak*



Datuen azterketa burutzeko, aldez aurretik bi haurrengandik gerok jaso dugun corpusean oinarritu gara. Baina azal dezagun astiroago prozesu guztia xehetasun zerbait gehiago emanez.

## Datu bilketa

Datu bilketa den bezanbatean, bi haur goizuetar euskaldun elebakarren hizkuntz emanaldiak jarraitu dira: Egoitz motikoarena eta Bianditz nekarena. Euskaldun elebakarrak direla esaten dugunean, gurasoak, senidearteko guztiak, lagunartea, eskola, e.a. euskalduna dutela adierazi nahi dugu; hortaz, harreman guztiak euskaraz egiten dituzten aldetik elebakartasuna ziurtaturik dagoela esan daiteke.

Haurren jarraipena egin dugula diogunean hizkuntzaren jabe-kuntzaren alorrean 'azterketa longitudinala' deritzan metodologia erabili dugula adierazi nahi dugu (Siguán/Colomina/Vila, 1990). Metodologia honen arabera behaketak eguneroko egoera errealetan oinarritzen dira (hala oinarritu behar dute), eta ez dute inolako helburu jakinik edo zehatzik, baizik eta haurrei beren gisa uzten zaie gogoratzen zaien guztia esan dezaten. Alde honetatik, inguruko helduak haurrei hitz eginarazten saiatzen dira, baina besterik ez. Eta beste aldetik, azterketa longitudinalak duten beste ezaugarri nagusi bat aipatzekotan honako hauxe nabarmenduko genuke: denbora askoan hartzen direla haurren hizkuntz laginak; gure lanari atxikiz, esan behar dugu haurrek urte t' erdi zutenetik (Egoitzekin urtea pasatxoarekin) lau urte

arteko datuak bildu ditugula, hamabostero hamabostero hiru ordu laurdeneko saioetan.

Jakina, hogeita lau orduetan zehar haurrek esaten eta egiten dituzten gauza guztiak ezin har daitezkeenez, nahitaez guzti horren laginak hartu behar izaten dira, eta guk ere halaxe jokatu dugu hiru ordu laurdeneko saioak hamabostetik hamabostera hartzerakoan, hizkuntza orokorraren mostra bat besterik ez bada ere, erakusgarri eta errepresentagarri izanen delakoan gaude.

Grabaketa saioak ez dira sekulan aldeztu aurretik prestatu edo antolatu; alderantziz, beti giro naturalean eta bat-batekoan burutu dira haurrei berezko jariora ateratzen utziz. Ez da, hortaz, inongo esperimentazio saiorik edo unerik tartekatuta grabaketek iraun duten denbora guztian.

Datu bilketaren lanaren beste azpisail bat datu hauen transkribaketari dagokio-na da, lan egiteko beharrezkoa baita datu horiek eskuragarriak izatea.

## Transkribaketak

Bi haurrekin burutu ditugun grabaketek bi urte t' erdi luze iraun badute ere, ez dira denak transkribatu. Oraingoan, grabaketak hasi ziren garaitik (Egoitzekin 1:03 adinetik eta Bianditzekin 1:06tik aitzina) hiru urte arterainokoak transkribatu dira, hirutik lau urte artekoak oraindik egiteke daudelarik. Guk lanaren bigarren zatirako (datuen azterketarako) erabili dugun corpusa transkribatutakoa hesterik ez da izan. Guztira, Egoitzen kasuan 43 saio eta Bianditzen kasuan 39 saio.

Bideoz grabatutako saio hauen transkribapenerako erabili den sistema, MacWhinneyk (1991) haurren hizkuntzaren azterketa burutzeko prestatu zuen CHAT ordenadore programa batean oinarritzen da. Programa honetan hizkuntz datuak (eta hizkuntzaz landako beste hainbat aldagai, hala nola ingurua, egoera, denbora,...) sartzeko gida zehatz bat proposatzen da; eta guk gure transkribaketarako erabili dugun sistema honen aldaera bat baizik ez da izan<sup>2</sup>. Beste nolabait esateko, MacWhinneyren laneko gida laburtu bat baizik ez dugu erabili; izan ere, aitortu beharrean gaude, ez ditugu oraindik CHAT programa horretan gure datuak sartu.

Grabaketetan zehar agertzen diren partaide guztiek ahoz ekoizten dutena transkribatzeko, sistema erdifonologikoa erabili da. Beraz, aditutakoa entzun bezalaxe irauli denez, ez dira hainbat arau ortografiko zaindu. Esaterako, /ʃ/-ak ez dira errespetatu Goizuetako hizkeran agertzen ez direlako, kontsonante eta bokal elkarketen ondorioz gertatzen diren fenomeno fonetiko guztiak belarrira ailegatu bezalaxe transkribatu dira, hizkera honetan oso arruntak diren sinkopak eta aferesiak mantendu dira, e.a.

2. I. Vila buru zuen taldeak egin zuen MacWhinneyren proposamenaren moldaketa bat katalanarentzat (transkribaketan ardura E. Serratena zelarik). Hemen egin diren transkribaketek moldaketa hori dute oinarritako.

Transkribaketa saio bakoitzaren hasieran, argigarri diren eta aldi berean beharrezko diren hainbat datu ematen dira. Hasteko, haurraren izena eta adina agertzen da (cf. Bianditz: 3;00;09), bai eta grabaketa egin den eguna zehazten ere (cf. 1993 - VI - 25); ondotik, saio horretan parte hartzen duten guztien zerrenda heldu da haurrerekiko ahaidetasuna zein den azalduz, bakoitzari –izenaren hasieraren arabera– laburdura bat ematen zaiolarik. Berehala, denbora erreala minututan markatzen da nolabaiteko erreferentzia zuzena izatearren (cf. *0:00*, eta aurreraxeago *1:00*,... zintaren amaierara iritsi arte, oro har, *45:00* inguru arte, bi hiru minutu goiti beheiti). Eta segidan, transkribaketari ematen zaio hasiera parte hartzaile desberdinek hitz egiten duten aldiro argi eta garbi zein den seinalatuz –hasieran ipinitako laburdurak erabiltzen dira horretarako–.

Partehartzaileek saioan zehar esaten dutena hizki arruntetan jaso da, eta elementu ez linguistikoak (egoerari dagozkionak, keinuei, intentzioei eta abarri dagozkienak) parentesi artean eta hizki etzanez eman dira. Gure helburua hizkuntzaren jabe-kuntza aztertzea denez, parte hartzaileen ekoizpenak entzun bezalaxe irauli ditugu, jatorrizko emanaldi horiek ahalik eta gehien errespetatuz. Horretarako, fidagarritasunari ahalbait eta gehien eusteko, transkribaketa erdifonologikoa erabili dugu. Eta deskribapen ez-linguistikoa, parentesi artean eta etzanez emana, gure azterketarako erabiliko ez dugunez, non eta ekoizpen linguistikoren bat argitzeko baliagarria ez den, batuan eman dugu.

Hori dela eta, transkribaketaren hasieran, denbora erreala paratu ostean (beti *0:00*-tik hasten dira grabaketak), lehenbiziko parte hartzailearen hitzak eman aurretik, saio guztietan egoera orokorra deskribatzen da: haurra non dagoen eta zer egiten ari den (edo beste parte hartzaileek zer egiten ari diren) azaltzen da, eta ondotik, grabaketan parte hartzen duen lehenengo pertsonaren emanaldi linguistikoa agertzen da.

Bideo zintatik paperera igarotzeko garaian, batez ere helduen eta haurren ahozko ekoizpenak zuzen jasotzekari eman zaio garrantzia. Alabaina inguruaren deskribaketa jaso da testua hobeki ulertzeko eta egoera argitzeko balio duen heinean, garrantzizkoa baita uneko haurra non dagoen eta zer egiten ari den jakitea. Aldi berean, hainbat ekoizpen linguistiko argitzeko edo ulertzeko balio dezakeen neurrian ere jaso da testuingurua: adibidez, kasu batzuetan arrunt zaila da aurrean grabaketako irudirik gabe zeinbaitek ekoiztutako deiktiko batek zeri egiten dion erreferentzia asmatzea, edo buruarekin keinu bat eginez haurrari (edo helduari) zer adierazi nahi izan zaion jakitea. Horrelakoetan beti paratu da informazio argigarri hori.

Esan dugunaren erakusgarri, ondora dakargu Bianditzen transkribaketa bateko lehenengo orrialdea nola egina dagoen zehazkiago iger dakion:

## 2. koadroa. Transkribaketa eredu

Bianditz: 2:06:08

1992-XII-24

**BLANDITZ**

B: Bianditz.

K: Koro (ama).

J: Juan Joxe.

0: 00

K: (*Hamakoa eserita dago liburua bateskuan duela; B. lurrean eserita, K.ren aurrean, kasa batetik atera duen panpinarekin jostaka*). Bitu ze politta don oain yantzita! Ori da, arropa ori zikintzen tzinen, bestek yazteko, Bianditz!

B: (*Lurretik zerbait hartu eta panpinaren aurpegira hurbilduz*) Erori itten tzio emen muturera!

K: Mutu-... (*Parra egiten du*).B: (*Panpina buratik hartuz*) Ola erori itte tzio!

J: Ze eroitzen tzio, bibiroia?

B: Ez, XXX! (*Panpinarekin dabilelarik*).J: (*B. panpina orrazten hasten da zepilua hartuta*) Orraztu ongi ongi, e!

1: 00

B: (*Panpina ondoan utzi eta aurrean duen kaxatik zinta bat hartzen du*) Oain au patu ba rit!

J: Koleta in bar al dizo?

B: Au... (*Panpina hartu, K.ri begiratu eta panpina luzatuz*) Patu, ama!K: (*Panpina hartuz*) Bai, nik nola nai zo patzera, neska?

B: Exta XXX!

K: (*Bere besotan panpina hartuz*) Aaai, biño au gauzan politta karri dit Orentzerok! Aai, Jexux!

B: (*Zutitu eta panpina ukituz*) Patu!K: E? Aaai! (*Besotan hartuz, B.ri begira*) Biño amatxori karri dila ba al dikizo?B: (*K.k zuen liburua hartuz*) Au neretzako... (*K.k mozten dio*).

K: Bai, ori-ori zuretzako ta au neretzako! Ala, segi! Aaaa, biño au gauzan politta! Bitu amatxori ñiña ona nola kartzen diin! (*K.k sorbaldan duen panpina hartu nahi B.k. oihu batzuk aterezaz*). Nola kartzen din amatxori ñiña ona Orentzerok, bituuu! (*B.k hartzen dio panpina*) Ze!

B: (*Zinta hartuz*) Au <patu!>

K: <Karri, bai>, patuko diu! (*Panpina hartu eta berriz sorbalda eramanaz*) Ai, au ñiña ona karri dio amari!

2: 00

B: Patu baaa! Pa-... (*K.k mozten dio*).

K: Bai, eon! Au kendu barko diu lenbizi, Bianditz! (*Panpinak buruan duen plastikoa kenduz*).

B: (*Panpina hartu nahian*) Ni kencluko di(t?)! XXX XXX.

K: Eon, eon! Kontuz kendu bar zkio gauzak, Bianditz, e! Lenbiziko eunen eztu puskatu bar! Biño au ñiñin ona! Au neretzako XXX!


Lehen azaldu bezala eta adibide honetan ikusten den moduan daude transkribatuak aipatu ditugun Egoitzen 43 saioak eta Bianditzen 39ak. Esan dugun legez, transkribaketaren hasieran, orrialdearen goiko aldean hauraren izena, adina eta saioa grabatutako egunaren data agertzen dira; ondoren parte hartzaileen izenak, eta berehala heldu da berezko transkribaketa, igarotzen den denbora unitateak kontuan hartuz.

Bildu eta transkribatu dugun corpusaren zatiaren azalpenei buruzko puntuak argitu ondoren, atxiki gakizkien orain lanaren bigarren uneari, hots, bildutako eta transkribatutako datu hauen azterketari.

### Datuen azterketa

Jaso ditugun datu hauek aztertzeko hizkuntzaren jabekuntzari buruzko lan hau bost atal nagusitan banatu da, atal bakoitzak bere izate propioa eta berezia duelarik: kokapen teorikoa, kokapen metodologikoa, input linguistikoa, output linguistikoa eta ondorioak. Ondoko koadroan ikus daitekeen moduan irudika daiteke:

*3. koadroa. Lanaren bigarren atala: datuen azterketa*



Lanaren lehenbiziko zatia (datu bilketa, alegia) oinarritzat edo abiapuntutzat hartuta, datu horien azterketa burutzeko aipatutako bost atal nagusi horiek eduki behar ditugu kontuan. Oro har, lanean zehar jarraitu behar ditugun ildo teoriko nagusiak aurkezten ditugu lehenbiziko puntuak.

Bigarren puntuan, aldiz-jadanik atal metodologikoari atxikitzen gatzazkiolarik-hipotesi nagusiak planteatzeaz landara, hipotesi bakoitza baieztatzeko edo ezeztatzeko erabili ditugun unitateak eta baliabideak azaltzen ditugu.

Beharrezkoa iruditu zaigu haurrak jasotzen duen hizkeraren gutxieneko deskribaketa bat burutzea, hau da, *input* linguistikoaren bereizgarri nagusienak aztertzea, alde batetik, euskalkiak dituen ezaugarriak agerian paratzeko, eta beste aldetik, deskribatu behar ditugun unitateak (IS eta kasu atzizkiak) xehekiago aztertzeko. Aipatutako hau dena egin dugu *input linguistiko*a deitu dugun hirugarren atalean.

Laugarren zatian, *output linguistiko*a deitu dugun atalean, hizkuntzaren ikasprozesuan zehar haurrek bere emandako ekoizpenen deskribaketa egiten dugu aztergaitzat hartu ditugun bi unitate horiek direla eta. Atal hau da lana ardatzen duen zutabe garrantzizko eta nagusienetarikoa, atal honetan erakusten baita bi haurren hizkuntz garapenaren zinetako prozesu guztia.

Azkenik, *ondorioak* deitu dugun atzeneko zatian, ezarri ditugun planteamendu teorikoak eta metodologikoak begi bistatik kendu gabe, eta aztertu ditugun unitateak aintzakotzat hartuz, hizkuntzaren ikaskuntzari buruzko halako ekarpenak egiten dira.

## Kokapen teorikoa

Psikologiaren arloan ikaskuntza orokorrari buruzko teoria nagusienetan, eta bereziki hizkuntzaren ikaskuntzari dagozkionetan, oinarritu gara gure lanaren nondik norakoa azaltzeko. Hortaz, kokapen teorikoa dela-eta, psikologiaren ikuspuntua hartu dugu aztertuko ditugun datuen abiapuntutako. Eredu honetan honako autore hauek eta beren ideia garrantzitsuenak azaltzen ditugu:

### *Lenneberg eta biologismoa*

Autore honen ustez ([1957] 1985:413-437) espezie bakoitzak filogenetikoki bere ezaugarri bereziak ditu, eta ezaugarri horiek sortzez, genetikoki, deus berezirik egin gabeclanik emanak dira. Halaber, espezieak dituen gaitasun desberdinak heldutasunarekin sortuko eta piztuko dira era espontaneoan, hau da, bere garaia iristen denean une horretantxe egokitzen zaion aldaketa suertatuko da; esate baterako, udare bat denborarekin ontzen da, eta zoritzen denean erori egiten da, inork deus egin gabe. Aldaketa hauek oso nabarmenak eta esanguratsuak direnean espezie horren aro kritiko bat dela esan ohi da. Gizakiarengan aro kritikoetako bat hizkuntzaren sorrerarekin hasten da; hain zuzen ere, hizkuntzak markatzen du aro garrantzitsuetako bat garapen ontogenetikoan. Hizkuntzaren agerpenetik aitzina komunikazio alor guztia erabat aldatzen baita umearen inguruan.

Bestalde, hizkuntzaren jaberuntza dela-eta, bi gauza garrantzitsu nabarmendu nahi ditugu: alde batetik, hizkuntzaren sorrera muga kronologiko berdintsuetan gertatzen da haur normal guztiengan (bigarren urtearen inguruan), eta beste aldetik, garapeneko uneak edo etapak oso antzekoak dira denetan. Horrek esan nahi du, lehenik, heldutasun organikoaren faktorea esanguratsua dela hizkuntzaren aro pribilejiatuaren<sup>3</sup> sorreran, eta bigarrenik, garunaren jokamoldea berdintsua dela haur

3. Hizkuntzaren aro kritiko honi 'aro pribilejiatua' deitzen dio Richelle-k (1984:47-53).

guztiengan, horregatik ediren daitezke haur guztiengan halako berdintasun zantzuak jabetzaren prozesuan.

Idea hauetan oinarrituz garatzen du Chomskyk (1980, 1981) "sortzekotasunaren hipotesia". Hizkuntzalari honen iduriz hizkuntzaz jabetzeko Hizkuntzaren Jabetzaren Mekanismoa (HJM) edo antzeko zerbaitek behar dugu sortzez. Horrek bideratuko luke, heldutasun maila egokira iristean, jaiotzetik burmuinean ditugun hatsarre gramatikal unibertsalak kanpoko hizkuntza partikularreko arauetara egokitzea, azken finean, bata bestearen aldaera bat besterik ez baita.

### *Skinner edo jokaerazko ikaskuntza*

Skinnerren lanak korrante behavioristaren barnean kokatu ohi dira bete-betean, eta maiz ereditako ere paratu izan dira. Bi ezaugarri nagusi ditu bere psikologiak (1981:20): lehenik, ikaskuntza lege orokorrak berdinak dira edozein organismorentzat, hauek nolakoak baitira ere; eta bigarrenik, baldintzapen erantzunzailea eta operatzailea bereizten ditu, hau da, alde batetik, estimulu zehatz baten aurrean organismoak ematen dituen erantzun automatikoak edo erreflexuak bereizten dira (Pavloven txakurren jokaeran bezala), eta beste aldetik, itxuraz estimulaziorik gabe organismoak ematen dituen erantzunak aurki ditzakegu (erantzun operatzaileak). Giza jokaeran garrantzitsuenak eta ugariak, inolako zalantzarik gabe, bigarren hauek (erantzun operatzaileak) ditugu.

Hizkuntza dela-eta, Skinnerrentzat beste giza jokaera bat besterik ez da, eta jokaera bat gehiago den heinean halaxe aztertu behar da. Bere iritzia eta ikuspuntu nagusia *Verbal Behavior* (1957) lanean agertzen du, eta –azpimarratzekoa da– beti "ahozko jokaeraz" hitz egiten du eta ez hizkuntzaz. Izan ere, berak proposatzen duen azterketa ez da hizkuntzaren arlo formalari bakarrari dagokiona, askoz ere eremu zabalagoa hedatu behar da hizkuntzaren bidez ematen diren erantzun operatzaile guztiak azaldu nahi badira. Horretarako beharrezkoa da halako azterketa funtzional bat egitea, edo nahiago bada, komunikazio ingurunea (hiztun-entzuleak eta hauen egoerak, ingurunea, intenzionalitatea, subjektuen historia, e.a.) aintzat hartzen duen azterketa burutzea<sup>4</sup>.

### *Piaget eta erakortasuna*

Piagetentzat, oro har azalduz, hizkuntzaren agerpenak markatuko du senti-mugitezko aroaren (0-2 urte) eta aurreragiketen aroaren (2-7 urte) arteko muga.

Hizkuntzaren gainean Piagetek buruturiko lanik mamitsuena *La formación del símbolo en el niño* (1979 [1949]) dela esan behar dugu, liburu honetan azaltzen baitu zehatz-mehatz haurra nola igarotzen den senti-mugitezko jokaeretatik erreprezentaziozko jokaeretara.

Prozesu honen deskribapena ildo bertsutik azaldua, oso azalpen interesgarriekin, agertzen da baita ere beranduagoko lan batean (Piaget 1984:59-95); garbiago

4. Skinnerren ikuspuntu funtzionala dela-eta ikus Richelle, M. (1984:32) eta Bronckart, J.P. (1980:26-33)



ikus daiteke, apika, umea imitazio zuzenetik hizkuntz zeinura nola iragaiten den. Derragun haurra imitazio soil eta zuzenetik abiatzen dela, imitazio diferentura iristeko; garai honetarako haurrak ikasi du nolabaiteko adierazleak eraikitzen eta erabiltzen, ikasi du zerbait ordezkatzeko sinboloak erabiltzen, eta hemendik hizkuntz zeinuak erabiltzera beste pauso txiki bat besterik ez da. Hasierako imitazioek *orain* eta *hemen*-ean gertatutako ekintzak lotzeko eta ordezkatzeko balio bazuten, imitazio diferentuek, sinboloek eta, areago, hizkuntz zeinuek hurbiltasun eta hemengotasun horretatik urruntzen lagunduko diote haurrari, komunikazio esparruan askatasun izugarria lortuz.

Aipatu ditugun pauso horiek denak, suitzarraren teoriaren oinarri epistemologikoi jarraikiz, gizakiari kanpotik dakorkion informazioa barnean dituen eskemetara moldatzen eta egokitzen den prozesu baten ondorio dira.

### *Vygotsky eta Garapen Hurbileko Eremua*

Autore errusiar honen ekarpenik interesgarrienetakoa, ikaskuntza orokorra dela-eta, gure iritzian, *Garapen Hurbileko Eremua* (GHE) delako kontzeptua da.

Haurrak duen garapen maila errealearen artean eta garapen potentzialaren artean dagoen diferentzia horri deitzen zaio Garapen Hurbileko Eremua (Vygotsky 1981a:86). Definizio hau, ordea, Alvarez/Del Río autoreek berriki diotenaren arabera (1993:114), bi ikuspegitan oinarritzen da: alde batetik, subjektuaren ahalmena hartzen da abiapuntutako, eta beste aldetik, ahalmen horien garapena, hein handi batean bederen, inguruko pertsonen (helduagoen edo, adin berekoak izan arren, gaituagoen) esku dagoela ikus daiteke. Hemendik heldu da teoria honek izan duen eragina hizkuntzaren irakaskuntzaren arloan, bai lehenengo hizkuntzaren irakaskuntzan, bai bigarren hizkuntzaren irakaskuntzan ere.

Eskuarki, irakaskuntza eragingarria izateko haurraren garapen mailara egokitu behar da, une horretako maila errealearen eta maila potentzialaren artean dagoen eremu (GHE-an hain zuzen ere) kokatuz. Bestela, haurraren gaitasun kognitiboaren mailaren azpitik mugitzen daba, nekez eginen du aurrera ikaskuntza prozesu horretan, eta ildo berari jarraikiz, irakaskuntza eremu horretatik at, goitiagoko maila batean kokatzen bada, alperrikakoa izanen da, ez baita haurraren gaitasuna maila horretara iritsiko.

### *Bruner eta formatoak*

Brunerren iduriz (1986) kultura transmititzeko eta hizkuntza transmititzeko bideak elkarren menpekoak dira, zeren hizkuntzaren bidez kulturari dagozkion hainbat gauza –gehienetan implizituki– erakusten baitzaizkio haurrari, eta alderantziz, inguru kulturalaren gauza asko eta asko hizkuntzan gelditzen dira islaturik.

Hala ere, Brunerrek (Vygotskyren eta Chomskyren ikuspuntu desberdinak lotu nahian edo) ez du ukatzen genetikoki hainbat gaitasun ez dugunik, zeren “gizakia- ren ekintza biologikoa da jatorriz, baina kulturala adierazteko erabiltzen diren bitartekoci begiratuz” (1986:24). Baina genetikoki gaitasun hori izanda ere, laguntza sistema bat behar du haurrak, emanak dituen ahalmen horiek ahalik eta zuzenen garatzeko.

Horretarako, haurren eta helduaren artean sortzen diren lehenbiziko komunikazio saioetatik bertatik abiatuz ikus daiteke badela bien elkarrekintza horretan halako negoziazio moduko bat. Negoziazio hori, hasiera batean, formatoetan gertatzen da batik bat. Hortaz, formatoak helduaren eta haurren artean gertatzen diren egoera arautu eta hitzartuak direla esan daiteke; egoera hauek, jakina, inguru ezagunetan jazotzen dira, eta bi komunikatzaileen artean intenzionalitate osoa izateaz gain izaera errepikakorra dute, behin eta berriro modu berera –edo oso berdintsuagertatzen baitira. Horrela ‘ikasten’ ditu haurrak gauzen eta ekintzen artean sortzen diren erlazioak nolakoak diren eta zein arau betetzen diren, askotan, arau horiek uste dugun baino abstraktuagoak eta konplexuagoak direlarik.

### Kokapen metodologikoa

Aipatu berri ditugun oinarri teorikoetan funts hartuz eta haiekin lotzen saiatuz, gure deskribaketaren ikuspuntutik begiratuta, metodologiaren alorrean era honetara laburbil daitezkeen gutxienezko bi hipotesi orokor botatzeko bide ematen digute teoria horiek berek:

a. Hizkuntzaz jabetzeko garai jakin bat dago ontogenetikoki, hau da, hizkuntzari dagokion garunaren zatia aski ontzen denean hasiko da haurra hizketan eta unitate morfosintaktikoak erabiltzen. Momentu hori hizkuntzaren aro kritikoaren agerpen unea dela esanen dugu. Hortaz, bi haur hauengan une hori non koka daitekeen -zein adinetan gertatzen den- ikusi beharko da.

b. Giza jokaera guztiak, ikasprozesuari dagokionez, aro batzuetatik igarotzen dira helduen mailara (edo eredura) iritsi arte. Hizkuntzaren ikaskuntzak beste hainbat giza jokaerak bezalako prozesua jarraitzen duela esan daitekeenez, aroka eginen da hau ere. Hori dela eta, hizkuntzaren, edo zehazkiago esan, egitura gramatikalen gaineko ezagutzaren jabetkuntza eta garapena aroka zati daitezkeen prozesu baten bidez igarotzen da; eta hizkuntzari atxikirik lau aro desberdin bereiz daitezke:

1. aroa: Aro aurregramatikala: unitate ez aztertuen aroa.
2. aroa: erregela akastunen aroa.
3. aroa: erregela zurrunen aroa.
4. aroa: erregela malguen aroa.

Lehenbiziko aroan, aro aurregramatikalean, haurrak ez du unitate morfosintaktikorik erabiltzen, beraz, ez da zilegi hizkuntzaren ikuspuntu honetatik inolako azterketarik egitea.

Gramatikalizazio garaian (bigarren arotik aitzina, jada araua erabiltzen hasten den garaitik aitzina) une desberdinak bereizi behar dira. Lehenengoz, bigarren aroa deitu duguna legoke. Aro honetan hasten da haurra egitura jakin bat (edo multzo bat izan daiteke, hori dago hain zuzen ere aztertzeke) erabiltzen lehenengo aldiz; orohar, denbora gutxi irauten duen garai honetan, haurrak egitezko eta ezegitezko hutsak burutzen ditu, hau da, zenbaitetan unitate morfosintaktiko hori zuzen erabiltzen du, beste zenbaitetan, behar izanda ere, ez du erabiltzen (ezegitezko hutsak), eta bestetan behar ez denean ere erabiltzen du (egitezko hutsak). Esate baterako, adlatiboa ikasterakoan helduaren *Nora bota duzu?* edo *Nora joan zara?* gal-

derei haurrak *basura* edo *eskola* erantzun dezake (ezegitezko hutsak), edo *basurara* edo *eskolara* moduko formak eman ditzake (egitezko hutsak).

Ibili ez-ibiliko une hori igaro ondoren erregela zurrunen arora igarotzen da, hirugarren arora alegia. Aro honetan haurrak ikasi du araua zein den, baina era zurrungian erabiltzen duenez berez ez dagokien adibideetara ere hedatzen du, berriz ere hutsak eginez. Aro honetako hutsek kualitatiboki desberdina den ezaugarri bat dute aurreko arokoekin alderatuz: aro honetan haurrak badaki araua erabiltzen baina botere gehiegirekin erabiltzen du, eta egitura, edo atzizkia edo dena delakoa, behar ez duten adibideetara hedatzen da, huts nabarmenak eginez; baina huts mota hauek ez dira egiten haurrak erregela ezagutzen ez duelako –ikasi baitu dagoeneko ezabiltzen– arau horrek indar handiegi duelako baizik, eta salbuespentzat har daitezkeen adibideetara ere zabaltzen delako. Esate baterako, adlatiboaren adibidearekin jarraikiz, une batean haurrek *nora?* galderari erantzuteko *goiti* (aztertu dugun hizkeran hau baita aldatiboko forma) esan beharrean \**goiara* esaten dute, hau da, *goi(a)* formatik abiatzen dira + *-ra* adlatiboko kasu atzizkia erantsiz.

Azkeneko aroan, laugarrena edo erregela malguena deitu dugun honetan, haurrak erabiltzen dituen gramatika egiturak helduak erabiltzen dituenen parekoa da, eta aurreko aroan agertzen ziren gainorokortze hutsak desagertu egiten dira oraingotan.

Hiru hipotesi nagusi hauek azaldu ondoren, berauek frogatzen diren edo ez ikus-teko, edo nola betetzen diren (edo ez) lanean zehar azaltzeko lan tresnatako unitate edo erreferentzia desberdinak erabili ditugu:

a. Hizkuntzaren aro kritikoa noiz den edo zein den esateko unitate morfosintaktikoak noiz agertzen diren behatu beharko dugu lehenik, eta gero aurrerago zehaztu datu orokorrak ikusi ondoren.

b. Garapen linguistikoa neurtzeko Esaldien Bataz Besteko Luzerak (EBBL) eta hauei dagozkien mailak hartu dira aintzat (cf. Brown 1973:55-57; eta euskararentzat egokituak Idiazabal 1991b).

c. Hizkuntz ikaskuntzari buruzko aroak bereizteko hainbat aro bereizle eduki ditugu kontuan, hala nola morfema edo atzizkiaren emankortasuna/ez-emankortasuna, imitazioa/emankortasuna, haurraren autozuzenkerak, helduei egindako zuzenkerak, aldaera estilistikoak, aldaera formalak, eten beteak diren edo hutsak, zalantza uneak, akats gramatikalik dagoen edo ez erreparatzea, e.a. (xehetasun gehiagorako ik. López-Ornat 1994:118-120).

## Input linguistikoa

Atal hau burutzeko hiru aldagaien inguruan ardaztu gara: alde baterik, haurrek entzuten duten mintzairan, eta beste aldetik, guk deskribatu behar ditugun bi unitateetan, hots, izen sintagman eta deklinabide atzizkietan.

Lehendabiziko mataza nagusiari eutsiz diogun haurrek entzuten duten hizkeraren ezaugarri nagusiak azaltzen saiatu garela, ez baita batua etxean ikasten duten aldaera, Nafarroa Garaiko euskalki bat baizik. Hortaz, zati honetan hizkera honi buruzko ezaugarri nabarmenenak aitatzen saiatu gara bokalismoari, kontsonantis-moari eta aditz morfologiari dagokienean.

Beste alde baterik, guk deskribatu nahi ditugun bi unitateen azterketa burutu dugu, bakoitzaren gora-behera desberdinak zein diren eta haurrek entzuten duten hizkuntz aldaera honetan nola gertatzen diren azalduz.

Izen sintagma dela eta, lehenengoz, osagaiez ihardukitzen gara honako banaketa hau aintzat hartuz: ardatz elementuak (izenak eta izenordainak), ardatz elementuen osagarriak (izenondoak, izenlagunak eta hainbat perpaus mota) eta determinatzaileak. Azken hauen barnean, arrunt mota eta izaera desberdinetakoak daudenez, hiru aspisail bereizi ditugu: 1.- mugatzaileak (hauen artean artikulua eta pluralgilea, erakusleak, eta guk halakotzat jo dugun *-ik* mugatzailea bereiz daitezkeela); 2.- zenbatzaileak (zehaztuak, zehaztugabeak eta orokorrak); eta 3.- determinatzaile zehaztugabeak. Eta bigarrenik, izen sintagmaren atal honetan ukitzen dugun beste puntua beronen egitura bera da. Luze eta sakon mintzatzen gara sintagmen egitura dela eta, izan ere orain arte eman diren ohiko egiturez gain, determinatzaileen agerpenaren arabera beste sailkapen bat proposatzen da bertan (edo, hobeki esan, osatu egiten da orain arte gramatiketan aurkezten zen izen sintagmari buruzko egitura) mota desberdinetako sintagmak bereiziz: izen sintagma 'arruntak', bananduak eta ordena aldatua duten sintagmak.

Deklinabide atzizkiak direla eta, hasteko, gramatikarien artean izan den -eta dagoen- eztabaida baten inguruan murgiltzen gara bete-betean: zinetako kasuak diren edo atzizki soilak diren. Ondoren, haurrek entzuten duten hizkera honetako deklinabide atzizkien -eta berauekin batera gelditzen den hondarkiarene- deskribapena burutzen da. Horretarako, atzizkien artean hiru multzo nagusi bereizi ditugu: 1.- gramatika kasuak (absolutiboa, ergatiboa eta datiboa), 2.- izenlagunak eratzeko erabiltzen diren atzizkiak (jabego eta leku genitiboak), eta 3.- adizlagunak osatzeko erabiltzen diren atzizkiak (gainerako atzizki guztiak: inesiboa, ablatiboa, hiru adlatiboak, sozilatiboa, destinatiboak, instrumentala, motibatiboa eta prolatiboa; atzizki hauezaz landara hainbat posposizio ere hartzen dira aintzat). Atzenekoz, haurren emanaldiak deskribatzeko garaian hizkera honek, garatu diren asimilazio eta sinkopen ondorioz sortutako sinkretismo gertakariak direla eta, dakarzikikegun hainbat oztopo eta zailtasunen berri ematen da aditzera.

## Output linguistikoa

Tesiaren gorputza osatzen duen zati nagusia haxe da, aitzinetik bildutako bi haurren hizkuntz emanaldiak, unitatez unitate sailkatuak, jasotzen baitira lanaren atal honetan. Datuok izen sintagmaren osagai desberdinen arabera taxuturik eta kasu atzizki desberdinen agerpenaren arabera antolatuturik aurkezten dira.

Datu guztiak hemen azaltzea ezinezkoa egiten zaigunez –ez baita hori gure helburua– interes gehiago duen irakurleak jo beza jatorrizko lanera. han edirenen baitu bi unitateon jabekuntza eta garapen prozesuari buruzko aski xehetasun eta adibide.

### *Izen sintagmaren jabekuntza eta gara pena*

#### *Mugatzaileak*

Hiru mugatzaileek joera desberdina agertzen dute hizkuntzaren ikaskuntz prozesuan hiru urte arte aztertu ditugun bi haurren datuak ikusita (ikus amaieran eranskin modura paratu ditugun 4. eta 5. koadroak).

## Artikulua

*Egoitz*

Egoitzen datuak ikusita idorotzen dugun lehenbiziko arazoa aro gramatikala noiz hasten den eta aro ezgramatikala noraino ailegatzen den bereiztea da. Beste ikerlari-rik (Idiazabal 1991, Barreña 1993, 1994, 1995, Ezeizabarrena 1996, Elosegi 1996, e.a.) muga hori ezartzeko oposizio ezaugarrietan oinarritzen dira, singularra eta plurala kontrajarritz, artikulua edota beste determinatzailearen baten erabilera aintzat hartuz, deklinabide atzizki desberdinak agertzen direnentz erreparatuz, edo funtzio sintaktiko desberdinak (subjektu/objektu,...) betetzen dituzten ikusiz, e.a. Aipatu-tako ezaugarri horiezaz gain guk muga hori non koka daitekeen esateko EBBLak ere hartu ditugu aintzakotzat.

Alde batetik pluralaren agerpenean oinarrituz, esan dezakegu lehenbiziko aldiz 2;00;29ko<sup>5</sup> saioan azaltzen dela Egoitzen corpusean, eta adibide bat besterik ez. Gure ustez argi eta garbi plurala ongi erabiltzen duen hurrengo saioa, hau da, plurala modu emankorrean erabiltzen duen saioa 2;02;18koa da, bitarte honetako grabaketetan hainbat pluraleko forma agertzen zaizkigun arren. Ohartarazi nahi dugu adin honetan egiten dituela Egoitzek ezegitezko hutsak pluralari dagokionean (pluralaren ezagutzaren bigarren aroa hori dela esan daiteke), adin horretatik aurrera zuzen erabiltzen baitu.

Beste determinatzaileen erabilerari begiratuz gero, tenoretsu horretan agertzen zaigun bakarra *zer* determinatzaile zehaztugabea da; lehenbiziko ekoizpenak 2;01;19koak direlarik, eta adin honetatik aitzina, esateko, saio guztietan agertzen da. Datu honen arabera muga ez legoke ez plurala agertzen (den lehenengo saioan (2;00;29koan), eta ez guk segurutzat eman dugunean ere (2;02;18koan), tarteko batean baizik. Behar bada, muga ezartzeko 2;02;02 izanen litzateke adinik egokiena, baina Bianditzekin batera grabatua dagoen saio honetan Egoitzek ez du bakarrik dagoenean bezainbat hitz egiten, eta saio horretako datu gutxiegi ditugu muga adin horretan paratzeko.

Aro gramatikalaren hasiera ziurtzat 2;02;18 adina dela esateko aintzat eduki dugun beste datua EBBLak dira. Adin honetan Brownen I. mailan badago ere, orain arte lortu duen EBBLrik garaiena du (1,41koa hain zuzen), eta hurrengo saioan igarotzen da II. mailara (1,82ko EBBLa). Hortaz, une horretan jauzia egiteko atalasean dagoela esan daiteke.

Garrantzizkoa da aipatzea zenbait izenek artikulua behar izaten dutela (cf. 1-3) eta beste batzuek (izen bereziek (cf. 4-6), haur hizkerako zenbaitzuek (cf. 7-9), mail-egatutako batzuek (cf. 10-11),...), berriz, ez. Haurrak ikasi egin behar du, hortaz, zeini itsatsi behar zaion *-a* eta zein eman behar duen *-a*-rik gabe.

5. Horrela agertzen diren zenbakiak adina adierazten dute. Lehenbiziko zenbakiak urteak ematen ditu; bigarrenak, hilabeteak; eta hirugarrenak, egunak. Kasu honetan 2;00;29 zenbakiak esan nahi dute haurrak bi urte, zero hilabete eta hogeita bederatzita egun dituela. Zenbait kasutan hasierako biak besterik ez dira aipatzen (cf. 2;04 edo bestela esan, bi urte eta lau hilabete).

- (1) **Bulua** [burua] non (d)a? (2;01;19)
- (2) **L(eh)oi(a)** (e)loli [erori] l(eh)oi(a). (2;02;18)
- (3) **Motoa** exin (d)a tatu [sartu]. (2;03;28)
- (4) (E)man **Goku**. (1;11;24)
- (5) **Hola I(b)ai**. (2;00;29)
- (6) **Hau la** [da] **Pi(n)tto**. (2;07;17)
- (7) **Hau aRe-aRe**. (2;00;08)
- (8) **Be** (e)kaRi, **be** ['ardia']. (2;01;06)
- (9) **Hara, pitxitxi** ['katua'] i(n) do. (*Margotu*) (2;05;09)
- (10) **Bai, lbairi txupatxus** eman b(eh)al (d)it. (2;10;11)
- (11) **Mosto** dahi [nahi] dut. (2;10;26)

Haur hizkerako hitzek arazo berezia planteiatzen dute, eta berez artikulurik ez duten hitzei, une jakin batean, 2;04;12 arte, umeak artikulua eransten die (cf. 12-14 adibideak). Bigarren aroan dagoen seinale garbia da, ezen adin horretatik aitzina ez baita horrelako huts egiterik aurkitzen.

- (12) **Hau kola** (gola). (2;03;00)
- (13) **Eta mua** jaten... (2;04;12)
- (14) **Mua** eta (pi)txitxia. (2;04;12)

Eskuin aldera hedatzen diren sintagmekin, hots, *Izen + izenondo* segida duten multzoekin ustezko hutsak ugariagoak eta sistematikoagoak dira. Hutsen kopurua izugarri igotzen da portzentualki (%15 baino gehixeago) eta Egoitzek hutsak egiten jarraitzen du ia saio guztietan zehar; ez dio ardatz elementuari ustezko artikulua ezabatzen arauak agintzen duen bezala (cf. 15-17). Nahiago dugu pentsatu izenkian agertzen den amaierako -a hori sasiartikulua dela edo nolabaiteko euskarri fonikoa dela, zeren adibiderik gehienetan kontsonantez bukatzen diren hitzei eransten baitie Egoitzek forma bokaliko hori; zaila litzateke bestela 18-20 bezalako adibideetan amaierako -a hori benetako artikulua dela defendatzea.

- (15) **Hara ga(l)txer(d)ia be(r)ria**. (2;07;17)
- (16) **Ha(r)txa u(r)diña** eka(r)txeko. (2;08;16)
- (17) **Gixona golia** [gorria] gañen. (2;11;10)
- (18) **Bil(d)otxa txurik**. (2;09;29)
- (19) **Ho(r)txa hau(n)dik** ro [du] ta. (2;11;10)
- (20) **Txokola** [txokorra] **be(l)txak** ha(r)tu lo... (2;10;11)

Ezker aldera hedatzen diren sintagmetan, hau da, *izenlagunekin* eratzen diren sintagmetan zertxobait desberdin jokatzeko artikulua, zeren -salbuespen isolaturen bat kenduz- beti ongi eraturako sintagmak erabiltzen baitu haurrak. Xehetasun handiegitan sartu gabe, esan dezakegu lehenbizi -en/-ko + -a(k) egitura agertzen dela, eta beranduago ikus ditzakegula -en/-ko + *izen* modukoak (cf. 21-34; ohartu -ko atzizkia beranduago azaltzen den arren, aipatu dugun bide edo ordena horri jarraitzen diola).

- (21) **Nerea**. (2;01;19)
- (22) **Bai, amana** ra. (2;01;19)
- (23) **Attonana**. (2;02;18), (2;03;00)
- (24) **Attanak**. (2;03;14)

- (25) Bai, hau **ho(r)koa** ra [da]. (2;03;28)  
 (26) Hau **no(n)goa** la? (2;06;20)  
 (27) **baxulekoa** [basurekoa] la [da] loloka [dordoka]. (2;10;11)  
 (28) **T(r)enan gañen** (d)o. (2;03;00)  
 (29) **Abonan** [amonan] **itxera** ba hola. (2;04;25)  
 (30) **Egoitzen o(n)don** do ahu(n)txa. (2;05;09)  
 (31) Hau ra [da] **behin hankak**. (2;06;20)  
 (32) **Holako t(r)atolek**. (2;08;16)  
 (33) Eta **heme(n)go gixoda** [gixona] do [no(n)] da? (2;09;15)  
 (34) **Holako lehoia** do [non] da? (2;11;23/2)

Aurkitu ditugun hutsak *-ko* eta *beste* izenlagunekin ediren ditugu, eta bietan egitezko hutsak. Batean, *-ko* motakoan, haurrak pluralgilea gaineratzen dio *noizko* adizlagunari izenlagun delakoan (cf. 35-36), eta bigarrenean, *beste* izenlagunarekin, *izen + izondo* egiruran agertzen zen bezalatsuko egitezko hutsa egiten du haurrak (cf. 37-38):

- (35) **Gerokok**. (*Goxokiak*). (2;04;25), (2;07;0-4)  
 (36) Jaso, jaso heben **gerokok**. (*Goxokiak*). (2;07;0-4)  
 (37) Heben [hemen] **be(s)tea** t(r)ena. (2;03;00)  
 (38) H: **Zer** da hau?  
 E: **Be(s)tea** talia [zaldia]. (2;03;00)

### *Bianditz*

Bianditzen datuak ikusi ondoren, ez dugu Egoitzen datuekin egin dugun bezala aro ezgramatikalaren eta gramatikalaren artean muga ezarri beharrik, grabaketak hasi zireneko gutxienez singularren eta pluralaren arteko bereizketa egiten baitzuen<sup>6</sup>, eta egina baitzuen, hortaz, aro gramatikalerako jautzia. Esan behar dugu 1;06;25 saiotik 2;03;16 saio arte Brownen I. eta II. mailen bitartean dabilela Bianditz. Eta Egoitzekin alderatuz ikus daiteke Bianditzen 1;06;25 saioko EBBLa (1,46) eta Egoitzek, II. mailara igaro baino lehen, 2;02;18 saioan duen EBBLa (1,41) berdintsuak direla. Adin horietako hizkuntzaren ezaugarriak bi haurrengan ikusirik, Bianditz lehenbiziko saioan aro gramatikalean sartu berria zela ondoriozta dezakegu.

Izen bereziak direla eta, lehenbiziko saiotik agertzen dira eta helduek bezala erabiltzen ditu (cf. 39-40). Baina Egoitzen corpusean ez bezala, hemen sasiartikulak edo daramatzaten izen bereziak aurkitu ditugu (cf. 41-42).

- (39) **Nariz** [Bianditz] ttaka. (1;06;25)  
 (40) Non da **(E)goitz?** (1;07;08)  
 (41) **Han** (d)a Xola<sup>7</sup> han (d)a. (1;08;19)  
 (42) ... ta hau **Bian(d)itz**, eta hau lotua **Bianditz** eta, **Bianditza**. (2;05;11)

Izen arruntetan Bianditzek, Egoitzek bezalaxe, bereizten ditu artikuludunak (cf. 43-46) eta artikulurik gabekoak (cf. 47-49), nahiz eta oso tarteka hutsen bat edo

6. 1;06;25 adinean (1. grabaketan) singularra eta pluralaz gain, beste kasu atzizki batzuk ere erabiltzen ditu Bianditzek: *-ko*, *-(re)n*, *-ra*,... (cf. 7. koadroa lantxo honen amaieran)

7. *Xol* etxean duten txakurraren izena da.

beste egiten duen (cf. ezegitezko hutsak 50-52; eta, urriagoak askoz ere, egitezkoak 53-54). Berezi aipatu nahi dugu, hasierako saioretan agertzen zaizkigun *shwa* formak edo sasiartikuluak (cf. 55-56), argi agertzen baita ezin dutela inolaz ere determinatzaile izan.

- (43) **Hau kotxea** da. (1:07;08)
- (44) **Hemen da kut(x)area.** (1:07;22)
- (45) Non (d)a **potoia?** (1:08;05)
- (46) **Tataia** [zartagja] patu. (1:09;18)
- (47) **(Txu)patxus.** (1:08;05), (2:05;11)
- (48) **Yoyu** [yogur]. (2:04;00)
- (49) Bihar **polo** jateko. (2:11;25)
- (50) **Afari** patu XXX. (1:10;01)
- (51) **O(r)raze** non da? (2:02;05)
- (52) Nik **e(r)rege** (i)kusten dut hor. (2:09;04)
- (53) Hortxen pa[ra]tuko ru(t) **loa** itten. (2:06;08)
- (54) **Holak** biek, **holak.** (2:10;28)
- (55) Maña [hemen (d)a] a pullua [burua]. (1:06;25)
- (56) Biariz [Bianditz] a ttaka [‘eseri’]. (1:08;05)

Haur hizkerako izenetan artikulua erabilera zuzena da oro har; haurrek behar duten izenei eranstean die artikulua (cf. 57-59) eta behar ez duten izenei, aldiz, ez (cf. 60-62). Aurki daitezkeen huts pixarren artean, ezegitezko hutsak desagertu egiten dira 2:02;21etik aurrera (cf. 63-65), baina egitezkoak beranduago arte, 2:08;04 arte, irauten dute (cf. 66-68).

- (57) Pu(n)pa **ninia.** (1:06;25)
- (58) **Holi** [hori] **pipia.** (1:07;22)
- (59) Ez, **txixia.** (1:11;13)
- (60) (I)kuxi **be-be** [‘ardia’]. (1:08;19)
- (61) **B(r)u(n)-b(r)un** attana. (1:09;04)
- (62) Non (d)a **uau-uau?** (1:10;16)
- (63) **Nini.** (1:06;25/2), (2:02;21/2)
- (64) **Pupu.** (1:08;05), (2:02;05)
- (65) **Pipi.** (2:02;05)
- (66) Hara **mua.** (2:01;22)
- (67) **Fua** r[ag]o. (2:05;11)
- (68) Hau nerea da **ku(r)ri-ku(r)ria.** (2:08;04)

Bestalde, eskuin alderako hedapena duten sintagmetan, edo nahiago bada, *izen* + *izenondo* egituran Egoitzen corpusean aurkitutako mota honetako ekoizpenekin suertatzen den bera jazotzen da, hau da, adibide gehienak zuzen emandakoak izan arren (cf. 69-72), egitezko hutsak portzentualki altuak direla, %15etik igarotzen dira eta (cf. 73-75).

- (69) **Txori (ha)undia.** (2:00;25)
- (70) **Nini haundia.** (2:03;02)
- (71) Hola... (ib)i(t)zen dia **tximu (ha)undik?** (2:04;00)
- (72) **Begi ttikik.** (2:06;22)



- (73) **Zaku(r)ra haun(d)ia.** (1;10;16)  
 (74) **Lolo ha(r)tza ttikia.** (2;00;25)  
 (75) **Abuntxa ttikik.** (2;04;27)

Ezkerrera hedatutako sintagmetan, edo nahiago bada izenlagunetan, hasiera-hasieratik agertzen zaizkigun egiturak artikulua itsatsia dutenak dira. *-ko* izenlaguna dela eta, lehenbiziko grabaketatik (1;06;25etik) aitzina ekoizten ditu Bianditzek *-ko + -(a)k* modukoak (cf. 76-78), eta zortzi hilabete beranduago arte ez da hasten arclazdun sintagmarik ematen (cf. 79-81). *-En + -(a)k* izenlagunarekin osatutako sintagmak ere hasierako grabaketetatik aitzina aurki ditzakegu (cf. 82-84), eta mota honetako sintagma ardazdunak *-ko*-rekin eratutakoak baino lehenagotik topatzen ditugu lehenengo aldiz, bi urterekin hain zuzen ere (cf. 85-87).

- (76) **Ho(r)koa,** no ta [non da]? (1;06;25)  
 (77) **Non (d)a hemen(g)oa?** (1;08;05), (1;09;04)  
 (78) **Gehio ka(r)riko holokoa.** (2;00;10)  
 (79) **Hemengo (g)auxak.** (2;02;21)  
 (80) **Hemengo honena** hautxi in dut... (2;03;16)  
 (81) **Bekonenako** [Bekodendako] **Jonck** jo itten (d)io. (2;03;16)  
 (82) **Bia(n)di(t)zena.** (1;06;25)  
 (83) **Non (d)a attana?** (1;08;19)  
 (84) **Hau ra** [da] **Xa Xena** [Juan Joxena]. (1;09;18)  
 (85) **Ekaitzen bizik(l)e(t)an.** (2;00;10)  
 (86) **Amonan baratzan.** (2;01;08)  
 (87) **Unain itxen.** (2;03;02)

*Beste* izenlaguna dela eta, prozesua guztiz antzekoa da: lehenbizi artikulua itsatsia duten formak agertzen dira (cf. 88-90), eta beranduago beste izenkiren batekin eraikitako sintagma konplexuagoak (cf. 91-93). Nabarmentzekoa da, *bestea papera* bezalako egitezko hutsak (cf. 94-96) une batean agertzen direla, Bianditzengan 1;10;01 adinarekin, eta mota honetako azkeneko ekoizpenak 2;00;25 saiotik aurrera desagertu egiten direla. Egoitzengan gertakari horixe bera edireten dugu baina hiru hilabete beranduago.

- (88) **Bestea?** (1;06;25)  
 (89) **Non (d)a be(s)tea?** (1;08;19), (1;09;04)  
 (90) **Bestea non (d)a?** (1;09;04)  
 (91) **Non (d)a be(s)te boxina?** (1;10;16)  
 (92) **(H)ar)a be(s)te t(r)a(k)torea.** (2;02;05)  
 (93) **Be(s)te piyota** [pilota]. (2;02;05)  
 (94) **Kin(d)u be(s)tea papera.** (1;10;01)  
 (95) **Non (d)a be(s)tea b(r)u(n)-b(r)un?** (1;10;16)  
 (96) **Hori be(s)tea tximeleta.** (2;00;25)

## Erakuslea

### *Egoitz*

Egoitzen ikaskuntz prozesuan arrunt garbi ikusten da hitz bateko esalditik bi hitzeko esaldietara nola igarotzen den, eta une hori hasi bezain laister agertzen dira erakusleak. Bi hitzeko esaldi hauetan erruz erabiltzen den egituretako bat *hau x* modu-

ko segida da, non 'pivot gramatika'-ren arabera<sup>8</sup> erakuslea hitz egonkorra eta *x* edozein hitz edo elementu izan daitekeen (izen, izenondo, aditz, aditzondo, zenbatzaile zehaztu, zenbatzaile zehaztugabe, ...). Izenen laguntzarekin honako hauek eman ditzakegu adibiderako:

- (97) **Hau lillia** [ninia]. (1;07;18)
- (98) **Hau tata** ['zapata']. (1;08;03), (1;10;27)
- (99) **Hau kua-kuu**. (1;08;17)

Argi dago hasierako bi hitzeko ekoizpen horietan, bai eta askoz beranduago arte emanen dituen ekoizpenetan ere, erakusleek guztiz zentzu deiktikoa dutela, beren zeregina, izenak berak dioten bezala, erakuste soila baita.

Esan daiteke erakusleak ia beti bakarrik osatzen duela sintagma. Izenarekin batera sintagma bakarra osatuz agertzen den lehenbiziko adibidea 2;05;09 adinean emandakoa da, eta ez da besterik agertzen lau hilabete beranduago arte, 2;09;15 arte hain zuzen ere; adin honetatik aurrera, aldiiz, sistematikoki ekoizten ditu ia saio guztietan (cf. 100-104). Beraz, esan daiteke Egoitzek Brownen IV. mailara iristen denean erabiltzen duela erakuslea zinetako determinatzaile modura era emankorrean.

- (100) **Ga(ix)toa Ego(i)tx hori**. (*Marrazkira seinatutuz*). (2;05;09)
- (101) **Behi hau xa(r)txe(n)** da. (2;09;15/2)
- (102) **In b(eh)al (d)ut ongi patu itxe hau**. (2;09;29)
- (103) **Hau le [[e]re] pixtola la [da] goli [gorri] hau**. (2;10;11)
- (104) **Xal(d)i hau nola la [da]?** (2;11;10)

Sintagman erakusleak hartzen duen tokiari eta laguntzen dion izenari begiratuz guztiz bereziak eta harrigarriak diren ekoizpenak *hau nini* eta *hau eltxitxu* segidek osatzen duten sintagmak dira (cf. 105-106). Adibide hauetan, batetik bestera bost hilabeteren tartea dagoen arren, badirudi izena zuzen emana dagoela, artikulurik gabe, baina erakuslea lekunez aldatu dela.

- (105) **Hau nini** (e)xin (d)a. (*Ezin du paupina ongi paratu*) (2;03;28)
- (106) **Eh, hau eltxitxu eka(r)txeko**. (2;08;16)

### *Bianditx*

Bianditzen datuak Egoitzenen antzekoak direla esan daiteke, hain ongi zehazteko nahasieagoak badaude ere. Gehien erabiltzen duen ordena *erak. + izen+-a* segidakoa da, eta gehienetan erakusleak inolako izenkirik gabe osatzen du sintagma.

- (107) **Hau golia** [gorria]. (1;06;25)
- (108) **Hau kotxea** da. (1;07;08)
- (109) **Hau (ha)utxia**. (1;09;04)

Benetako determinatzaile bezala, izenki baten laguntzarekin, 1;09;04 adinarekin azaltzen zaigu lehenbiziko adibidea (cf. 110), hurrengoaz zazpi hilabete hutsartea-

8. 'Pivot gramatika' dela eta, ikus esaterako, Brown, R. (1973:90-111) eta Hernández Pina, E. (1984:89-110).

ren ondoren 2;04;00 adinarekin (cf. 111), eta ibili ez-ibiliko garai bat igaro ondoren 2;10;14ko grabaketatik aurrera saio guztietan agertzen da (cf. 113-114).

- (110) **Hori, be(s)te hori**, b(r)u(n)-b(r)u(n) be(s)tea. (1;09;04)  
 (111) **Mutu(r)ra xar horiek** hola ibi(lt)zen (d)o. XXX, txi-xera tximuk. (*Kazuela ahoan hartuz*). (2;04;00)  
 (112) **Xe ai ra moxo(r)ro hori?** (2;08;04)  
 (113) Niri jantzi **zapatiya** [zapatilla] **hau**. (2;10;14)  
 (114) **Ez, hau, haundi hau** nahi ru(t), **haundi hau** nik. (2;11;25)

Datuak Egoitzenak bezain gardenak ez badira ere, esan dezakegu egitura bitxia erakusten duten ekoizpenak (erakuslearen lekunea aldatua dutenak, alegia) aurki daitezkeela (cf. 115-116). *Yogur* izena artikulurik gabe erabiltzen dute helduek, baina *payaso* izenak artikulua behar du. Kontuan izan behar da, ordea, hizpidetako dugun ekoizpen hau baino beranduagoko saioetan ere *payaso* eta *payasito* izenak zenbaitetan artikulurik gabe erabiltzen dituela Bianditzek. Hortaz, ezin dezakegu ziur esan ekoizpen hauetan haurrak izenari artikulua kendu dion edo ez. Baina Egoitzen adibideak ikusita badirudi posible dela horrelakorik gertatzea.

- (115) **E(z)to** nahi ninik, **hori yoyu(r)** [yogu(r)], eh! (2;04;00)  
 (116) **B(e)itu hori payaso**. (2;06;22)

#### -IK Mugatzailea

Bi haurrengan beranduen agertzen den mugatzailea dugu. Egoitz mutikoaren corpusean dauden lau adibideetatik lehenbizikoa 2;10;11ko saioan aurkitu dugu, eta hiru urterekin oraindik ez du sistematikoki zuzen ematen. Mugatzaile hau dela eta, argi eta garbi esan daiteke egitura honen ikaskuntzaren bigarren aroan dagoela, hutsen kopuruari begiratuz, zalantza handiak baititu oraindik atzizki hau erabiltzeko garaian, eta mugatzaile honen ordeaz, askotan, singularra edo plurala erabiltzen du.

- (117) **Lilua** [dirua] exto **behalikan** [beharrikan]... (2;10;11)  
 (118) **Nik** extu(t) **bihalik** [beharrik]. (2;10;26)  
 (119) **Xapela** exto **behalikan** [beharrikan]. (2;11;10)

Bianditzen corpusean lehenbiziko elkarren segidan emandako hiru adibideak 2;04;00koak dira (cf. 120), hurrengoa lau hilabete beranduagokoa (cf. 121), eta badirudi bi hilabete hutsunea egin ondoren modu sistematikoan 2;10;14tik aurrera ekoizten hasten dela (cf. 122-123). Hala ere, ezin dugu esan, datu gehiegirik ez baitugu, egituraren ikasprozesuaren bigarren aroan dagoen edo hirugarrean dagoen.

- (120) **Honek** exto **ñiñikan**, eh! (2;04;00)  
 (121) **Bai, biño e(z)tu[gu]** **goxokikan** erosiko. (2;08;19)  
 (122) **Exta babe(r)na(i)kan**. (2;10;14)  
 (123) **Ezto leku haundikan** ta, beitu. (2;11;12)

#### Zenbatzaileak

##### Zenbatzaile Zehaztuak

###### a) Egoitz

*Bat* eta *bi* zenbatzaileek arazo desberdinak planteiatzen dituzte, batez ere ordenari eta aniztasunari dagokionez. *Batzenbatzailea* izen baten determinatzaile modura,

*izenki + bat* segidan, 2;03:14-tik aurrera topatzen dugu, eta agertzen den unetik aitzina badirudi egitura honen emankortasuna ziurtatu egiten dela, ondoko adibideetan ikus daitekeen bezala:

- (124) **Hol betxe bat** [hor beste bat]. (2;03:14)
- (125) **Be(s)te kotxe bat**. b(e)ira. (2;03:28)
- (126) **Tali** [zaldi] **ttiki bat**, pai [bai]. (2;03:28)
- (127) **Hola taten** [sartzen] (d)a **moto pat**. (2;03:28)

Artikulua edo ustezko artikulua erabilerara dela eta, azpimarratu behar dugu horrelako egituretan egitezko hutsen alerik ez dela aurkitu corpus guztian.

*Bi* zenbatzaileak (eta, hedapenez, beste guztiak) bestelako arazoak aurkezten ditu, nahiz eta, saio bat goiti-beheiti, *bi + izen* segida eta *izen + bat* egitura bateratsu agertzen diren (cf. 128-131). Lehenbiziko bi adibideak aro aurregramatikalekoak dira eta ez dago ziur esaterik haurrak ezabaketa araua aplikatu duen edo ez, ez baitute berez *-a*-rik hartzen, baina beste biak oso argiak dira, haurrak artikulua ezabatu baitie arauak agindu bezala.

- (128) **Bi ñañan**. (2;00:08)
- (129) **Bi aRe-aRe**. (2;00:08)
- (130) **Bi kotxe**. (2;03:28)
- (131) **Bi begi**. (2;05:09)

Berezitasunekin hasteko, diogun, lehenbizi, zenbatzailea lekunez aldatua duten adibideak aurkitzen ditugula (cf. 132-134). *bat* zenbatzailearen eraginez ziu renenik, eta gainera ekoizpen batzuk nahiko berantiarrak direla, azkenekoa 2;10:11 adinarekin aurkitzen baitugu.

- (132) **Unai bi**. (2;03:00)
- (133) ... **hau bi** elama(n) b(e)h(al) (d)ut putxura. (2;09:00)
- (134) **Hau la** [da] **potxolo box(t)**. (*Esakuko behatz lodia erakutsiz*). (2;10:11)

Bigarrenik, esan beharra da sintagma mugagabeak eta mugatuak jokaera desberdina dutela. Egoitz 2;06:05 adinerako jabetu da zenbatzailea daraman sintagma mugagabeetan artikulua ezabatu behar zaiola izenari; gertakari hau argi ikus daiteke egiten dituen arauaren gainorokortze adibideetan, *-a* berezkoa duten hitzei ere ezabatu egiten baitie amaierako bokala artikulua delakoan (cf. 135-136). Badirudi aski berandu arte hedatzen dela hirugarren aro hau, eman dugun bigarren adibidea 2;10:11koa baita.

- (135) **Bi alox** [arros(a)]. (2;06:05)
- (136) **Bi pilot**. (2;10:11)

Sintagma mugatuetan badirudi haurrak ez dakiela zein osagai erantsi behar dion pluralgilea, ezen ondoko adibideak ikusiz gero, ohar gaitzke haurrak edo zenbatzaileari, edo izenari, edo bi osagaien eranstean diela pluraleko marka (cf. 137-139). Azkeneko adibidea -2;10:11ko ekoizpena- ikusita ez, dirudi haurra hiru urte baino lehen gai denik honelako sintagma motak zuzen ibiltzeko, tartean bakarren bat itxuraz ongi emana ediren daitekeen arren.

- (137) **H: Eta horik zer dia?** (*Upinera seinatuz*)  
**E: Bi muk**.

- H: Zer?  
 E: Behiak.  
 H: Bi behi.  
 E: (*Orria pasatuz*) Halaaa!  
 H: Haraa! Zer da hori?  
 E: Hau?  
 H: Zer da?  
 E: Txelia!  
 H: Xerria, non da xerria?  
 E: Ro ro [non do]? (*Marraski gustietara begiratzuz*)  
 H: Non da ba xarria (sic)? Ezta ta!  
 E: (*Seinalatuz*) (H)ar) a mu! (*Bi behatz erakusleekin seinalatuz*)  
**Biek muu!** (2:04:12)
- (138) Joka! Joka bi txal(d)ik. Jo, joka talik [zaldik] bik. Joka talik bik. (*Plastikozko bi zaldi itiki elkarren aurka joz*). (2:05:09)
- (139) H: 'Tà hau?  
 E: Bexte pilota.  
 H: Beste pillota.  
 E: Hori bexte pilota!  
 H: Klaro!  
 E: **Biek pilota.**  
 H: Biek...?  
 E: Bai.  
 H: Biek pillotak. (2:10:11)

*Bianditz*

*Bat* zenbatzailearen inguruan diogun izenarekin batean dagoen 1:09:18ko zalan-tzazko adibide goiztiarra alde batera utziz, 2:04:00 saioan agertzen zaigula lehenbizi-ko adibide garbia, eta hurrengoa 2:07:06an, hiru hilabete beranduago (cf. 140-142). Hortik aitzina modu sistematikoan ematen ditu ia grabaketa guztietan. *Izen + bat* egitura Bianditzek gehienetan zuzen erabiltzen duen arren, ustezko artikulua sartuz huts berantiarrak ematen ditu (cf. 143-144).

- (140) **Yogu(r) ttiki bat.** (2:04:00)  
 (141) **Enkargu bat** ittera se[gli]. (2:07:06)  
 (142) Hoik dia gerezi bi, ta hau **gerezi bat.** (2:09:17)  
 (143) Eta hau [e]re **pampiña bat.** (2:08:19)  
 (144) Ni(k) badakit **itxe politta bat** itten. (2:11:25)

*Bi* zenbatzailea hizpidetako hartuz, esan dezagun, hasteko, Bianditz nexka 2:01:22 adinarekin hasten dela ematen mota honetako sintagmak, nahiz eta modu emankorrean 2:06tik aurrera erabiltzen dituen (cf. 145-147). Osagaiek ordena aldatua duten sintagmak ere badira (cf. 148-150), Egoitzen corpusean bezalaxe. Halaber, badirudi Bianditzek ere ez dituela ongi bereizten sintagma mugagabeak eta mugatuak; hau baieztatzeko adibide bat besterik ez badugu ere, nabiko adierazga-

ria dela iruditzen zaigu (cf. 151), eta gainera Egoitzen datuak ikusita hipotesi honen alde jokatu behar dela ematen du.

- (145) Ninia(k) **bi u(r)te** ninia(k). (2:01:22)
- (146) (Bi)tu, **bi mufiteka**. (2:06:08)
- (147) **Bi haran**. (2:09:17)
- (148) (He)men **tximeleta bi**. (2:01:22)
- (149) **Txitxo** [txito] **bi**. (2:08:04)
- (150) Hola **esku biekin** lotu b(eh)ar (d)a. (2:10:14)
- (151) 11: **Ze** (e)kartzzen dizo amonari?  
B: **Txoko**[la] **tek bi**. (2:04:27)

### Zenbatzaile Zehaztugabeak

#### Egoitz

Zenbatzaile zehaztugabeekin eraturako lehenbiziko sintagmak ardatz elementurik gabekoak dira (cf. 152-154), eta aztertu dugun corpusa aintzat hartuz arrunt berandu agertzen dira ardazdun sintagmak, izan ere, 2:08:00 adinarekin hasten baita Egoitz *izenki + zenb.* egitura erabiltzen (cf. 155-157).

- (152) **A(s)ko**. (1:09:16), (2:01:06), (2:03:14), (2:05:09)
- (153) **Gutxi**. (2:06:05)
- (154) **Abak** [amak] **baro** [bado] **axko**. (2:07:04)
- (155) Eta **kolore axko**: holia, lara(n)ka. (2:08:00)
- (156) **Pux-pux(l)e axko**. (2:09:29)
- (157) **Lolo axko** i(n) b(eh)al (d)ota. (2:09:29)

Bestalde, *izen + zenb.* segida dutenen artean artikulua edo sasiartikulua duten ekoizpenak ere topatzen ditugu (cf. 158-160), batzuk aski berandukoak gainera.

- (158) ... b[al]ino **indala** [indarra] **axko**... (2:10:11)
- (159) Ho(r) la [da] **belala** [belarra] **axko** ta. (2:10:11)
- (160) Xal(d)ik **belala** [belarra] **axko** ja(n).... (2:11:10)

#### Bianditx

Egoitzen kasuan ez bezala, agertzen diren lehenbiziko formak *iz. + zenb.* egitura dutenak dira 1:08:19ko saioan (cf. 161), baina egitura mota honen erabilera 2:05:25 arte jauzika bezala ibiltzen da (egitura hau agertzen den lehenbiziko saiotik hurrengora hiru hilabete igarotzen dira, hurrengo ekoizpenera lau hilabete gehiago, eta hurrenena beste bi). Badirudi 2:05:25etik aitzina modu sistematikoagoan ematen dituela Bianditxek (cf. 162-164). Bakarrik, *izenkirik gabe*, emandako zenbatzaileak, berriaz, 1:09 adinarekin agertzen diren arren, *iz. + zenb.* egitura baino beranduago, hasten diren unetik era emankorrean darabiltza (cf. 165-168).

- (161) Han da **be-be** [ˈardi] **a(s)ko**. (1:08:19)
- (162) Eh, **opari asko**. (2:05:25)
- (163) **Txupete axko** rut, eh. (2:07:19)
- (164) Bat, bi, hiru, lau, box(t), **urare** [udare] **asko**. (2:11:25)
- (165) **A(s)ko**. (1:09:04), (1:11:13), (2:00:10), (2:03:16),...
- (166) Ni(k?) **pixko bat**. (2:03:02)

(167) **Asko** ezto in. (2:03;16)

(168) **A(s)ko** ezture, **gntxi**. (2:10;28)

Txartzat jo ditugu uestezko artikuluearekin edo pluralgilearekin emandako sintagmak (cf. 169-173), baina ohartu artikulua kontsonantez amaitzen diren hitzei soilik eranstean zaiela, ez besteri. Azpimarratu nahi dugu pluralgilearekin eginiko hutsetako bat arrunt berandukoa dela, 2:11:25 adinekoa hain zuzen ere.

(169) Hara **ura a(s)ko**. (1:08;19)

(170) Non da, eh, **papera asko?** (2:05;25)

(171) **Gauxa axko** hemen. (2:08;19)

(172) (He)men **pitufok a(s)ko**. (1:09;04)

(173) **Goxokik axko**, gusanitos eta. (2:11;25)

Dena dela, Bianditzek egitura mota hauen erabileraren araua ikasi duela zalararik ez dago; ikuspuntu honetatik oso interesgarriak dira 2:06;22 saioan haurrak ematen dituen elkarren segidako bi gainorokortze adibide hauek:

(174) **B: Muxi(ka) pixko bat, eh! Muxik(a) pixko bat, eh.**

**H: Musika pixka bat, hoixe!** (2:06;22)

Eman berri diren bezalako adibideak ikusiz, zer suposatu behar dugu, bost hila-bete beranduago haurrak burutzen dituen egitezko hutsak ikusiz (izenari uestezko artikulua eranstean ari gara) ez dakicela oraindik araua erabiltzen? Haurraren corpusean 2:06 adinarekin gainorokortzeko adibideak aurki badaitezke araua barneratua dagoela esan nahi du (eta gainera 'botere' gehiegi duela adierazten du). Zaila da pentsatzea, hortaz, zinetako artikulua izan daitekeela beranduagoko egitezko hutsetan aurkitzen dugun *-a* hori.

### Zenbatzaile orokorrak

Égoitzen corpusean *dena* zenbatzailea baizik ez dugu idoro, eta hau nahiko goiz hasten da agertzen (cf. 175-177). Baina ekoizten dituen bi adibide berantiarren arabera (cf. 178-179) ez dirudi oraindik helduen ereduaren arabera erabiltzen duenik.

(175) **Nena** [dena] papo. (2:00;08)

(176) **Nenak**, lolo itten nenak. (2:03;28)

(177) (E)da(n) du(t) **deda** [dena]. (2:04;25)

(178) **Kola Kau dena** eran do. (2:09;15)

(179) ... **alautxa** [arrautza] **dena** extu(t) dango [jango]. (2:10;11)

Bianditzen corpuseko saio gehienetan zehar agertzen da *dena* determinatzailea (cf. 180-183), eta behin besterik ez *guzi* zenbatzailea (cf. 184). Hala ere, Égoitzen kasuan bezalaxe, ez dirudi (185) bezalako adibidea ikusita, hiru urte bete baino lehen determinatzaile honen erabilera zuzena dela esan daitekeenik.

(180) **Nena** [dena] XXX. (1:08;19)

(181) Papo in **dena** exta. (1:10;01)

(182) Hara (ha)utxi **nena** [dena]. (2:01;08)

(183) **Nena** [dena] baxurera bota ru(t?). (2:03;16)

(184) Xuretsako **diru guxik**. (2:04;27)

(185) Jan du[gu] ta guk, **dena-rena amor(r)rik**. (2:10;14)

*Determinatzaile zehaztugabeak*

*Egoitz*

*Zet(r)* determinatzailea Egoitzen aro gramatikaren hasiera kokatzeko garrantzizkoa izan zaigu, pluralaren lehenbiziko forma agertu eta berehala topatzen baitugu lehenbiziko aldiz galdetzaile hau, gero saio guztietan aurkituko dugularik (cf. 186-189). *Zein* galdetzailea, ordea, beranduxeago hasten da agertzen (cf. 190-191).

- (186)            **Hau xel** (d)a? (2;01:19)
- (187)            **(H)e**men **te** la [zer da]? (2;01:19)
- (188)            **Hori zel** (d)a? (2;02:02)
- (189)            **Txel** (d)a hori **txel** (d)a? (2;02:02)
- (190)            **Tei(n)** [zei(n)] da ba? (2;04:12)
- (191)            **Xei(n)** da. (2;05:09)

Batez ere bi funtzio nagusi betetzen dituzte determinatzaile hauek: galdetzaileena (orain arte ikusitako adibideak) eta mailakatzaileena (cf. 192-194). Ikus daiteke galdetzaile denean (zalantzarik gabe, hiruretan formarik erabiliena) Egoitzek beti bakarrik erabiltzen duela, inolako izenkirik gabe, eta ez dela, hortaz, mugagabean dagoen *zein etxe* motako sintagma ardazdunik topatzen.

- (192)            **Xe** polita den. (2;11:10)
- (193)            **Xe** sudur haun(d)ia [du]xun. (3;00:07)
- (194)            **Xe** ha(n)kak. (2;07:04)

*Biandiz*

Galdetzaileak ez dira lehenbiziko saioan agertzen, baina 1;07:22 adinean bai, eta hortik aurrera, hutsune batzuk baldin badira ere, ia grabaketa guztietan ediren daitezke (cf. 195-198); eta subjektuaz galdetzen duen *zein* galdekaria, aldiz, Egoitzen corpusean bezalaxe, beranduago agertzen da (cf. 199-201).

- (195)            **Ze(r)** da hau? (1;07:22)
- (196)            **X(er)** ar)i da atta? (1;08:05)
- (197)            Hemen **xe(r)** da? (1;11:27)
- (198)            Hori **zer** (d)a? (2;01:08)
- (199)            **XXX x(e)in** (d)a? (1;09:18)
- (200)            **Zein** da? (2;04:14)
- (201)            **Zein** hase[rra]tu da? (2;04:27)

Mota honetako galdekariak direla eta, nexka honek emandako kopuru guztiaren %94a galdetzaileek osatzen dute, eta hondarreko %6a mailakatzaileetat eta izenen laguntzaileetat agertzen zaigu (cf. 202-204).

- (202)            **Ze bapa** [guapa]. (2;0;2:21)
- (203)            Hara **ze haundia** in duan nik. (2;08:04)
- (204)            B(e)itu **xe hankak**. (2;04:14)

Izenarekin batera forma mugagabearekin ediren daitekeen adibide bat besterik ez dugu corpus guztian, eta hura oso berantiarra da, 2;11:25 adinarekin ematen baitu, ondoan ikus daitekeen moduan:

- (205)            **Ze jostallu?** (2;11:25)



*Kasu atzizkien jabekuntza eta garaipena*

Kasu atzizkietan eskaintako bigarren atal honetan, azaldu nahi ditugun datuen laburpena egiteko, gure interesguneak bi ardatzen inguruan bildu ditugu, alde batetik deklinabide atzizki desberdinen agerpena eta erabilpena hartu dugu aintzat, eta beste aldetik, atzizki beraien hutsen ereduak eta nolakotasuna azaldu nahi dugun kasuz kasu.

*Absolutiboa*

Absolutiboak subjektuaren eta objektuaren funtzio sintaktiko nagusiak betetzen dituzenez, nahitaez aditzari behatu behar zaio, are eta gehiago hizkuntz jabekuntza-aren lehenengo ekoizpenak direnean, aro gramatikaren hasieraren giltzarria bi funtzio hauek erabileran baitatza.

Egoitzek objektuzat ematen duen lehenbiziko izena 1;11;11 saioan agertzen da: lehenbiziko subjektuak, berriz, hiru hilabete beranduago agertzen dira, 2;01;19 saioan. Egoitz, hortaz, bi funtzioak batera 2;01 adinarekin hasten da erabiltzen, eta adin hori hartu beharko dugu abiapuntutako.

- (206) (E)kaRi **ninia**. (1;11;24)  
 (207) **Makilla** tatu [sartu] (2;00;08)  
 (208) **Hanka** patu. (2;01;06)  
 (209) **Bulua** [burua] non (d)a? (2;01;19)  
 (210) **L(eh)oia** (e)loli [(e)rori]. (2;02;18)

Bianditzengan esaldi adizdunen artean izenak subjektu, objektu edo atributu funtzioarekin grabaketak egiten hasi ginen adinetik agertzen direla esan behar dugu.

- (211) **Nariz** [Bianditz] ttaka ['eseri']. (1;06;25)  
 (212) **Airitzi** [Ainize] tturi [etorri]. ama. (1;06;25)  
 (213) Non da (E)goitz? (1;07;08)  
 (214) Patu (g)altze(r)dik. (1;06;25)  
 (215) **Baxela** [pastela] (e)man. (1;06;25)  
 (216) Haur **kotxea** da. (1;07;08)

Datu jakingarri modura ematearren, bi haurren corpusak miatuz ikus daiteke aditzekin batera emanik dauden izen gehienek objektu funtzioa betetzen dutela, eta subjektuzat emanik daudenak askozaz urriagoak direla.

*Ergatiboa**Egoitz*

Haur honek ergatiboeko lehenbiziko forma 2;01;16 adinean ematen du (cf. 217), eta saio horretan behin besterik ez dugu aurkitzen: baina ezegitezko hutsak, aldiz, oraindik ugari dira (cf. 227-228). Beraz, egitura honen gramatikalizazioaren hasierako unetzat har daiteke data hau.

Hilabete bat beranduago saiotik aitzina, hau da, 2;02;02 adinetik aitzina ergatiboeko formak grabaketa guztietan agertzen dira eta ezegitezko hutsak nabarmen murrizteaz gainera bakan suertatzen dira, ez baitira sekulan %10era iristen. Pluraleko formak beranduago idorotzen ditugu (cf. 225-226)

Hitz kategoriari dagokionez, ez dirudi hitz mota jakin bat nabarmentzen denik ergatibo marka hartzeko garaian; izenak eta erakusleak paretsuan azaltzen dira:

beranduxeago izenondoak 2:03:28 adinarekin, eta hemendik hilabete batera, beranduenik, pertsona izenordainak. Esan daiteke izenak, izenordainak eta erakusleak ekoizten hasten diren unetik aurrera saio guztietan azaltzen direla, eta portzentualki gehien gauzatzen diren kategoriak direla.

- (217) **Attonak.** (2:01:06)
- (218) **Hola holek** [honek]! **Kax-ka(x) holek,** ama! (2:02:02)
- (219) **Hola Unaik.** (2:02:18)
- (220) **Talik** [zaldik] "iii". (2:02:18)
- (221) **Hau amak, Egoitzek** hau. (2:03:00)
- (222) **Ibaiek** ha(r)tu do. (2:03:14)
- (223) **Nik** exin du(r). (2:04:25)
- (224) **Hola i(n) nik.** (2:05:09)
- (225) **Al(d)ik** [ardik] extute ex(n)ea. (2:09:29)
- (226) **Ta** otxoa ikuxi xuten **a(r)kumek** eta... (3:00:07)

Ezegitezko huts gehienak aro ezgramatikalekoak dira. 2:00:29 arterainokoak (cf. 227), eta gainerako guztiak egituraren aro gramatikalekoak. Corpus guztian zehar ezegitezko hutsak aleka aurkitu ditugun arren, bigarren arokoak dira, argi eta garbi, hau da, egitura honen erabileraren hasierako unekoak, ondoko 228-229 adibideak (ezegitezko eta egitezko hutsak hurrenez hurren).

- (227) **H:** Zeñe(k) do monoa?  
**E:** **Atta.** (2:00:29)
- (228) **H:** Ta hemen zenek itten do lolo?  
**E:** **(E)gox.** (2:01:06)
- (229) **H:** Eta han ze-zein joaten dire eskolara?  
**E:** **Egoitzek** eta Unai. (2:03:00)

*Bianditz*

Lehenbiziko grabaketatik aurrera aurkitzen ditugu Bianditzengan izen ergatibodunak (cf. 230 eta hurr.), eta 1:07 adinean isilune labur bat igaro ondoren saio guztietan topatzen ditugu. Hurrena, multzorik jorienean, pertsona izenordainak ediren daitezke sistematikoki saioz saio hutsik egin gabe 2:00:25 adinetik aitzina (cf. 237-239), eta hilabete bat beranduago erakusleak, nahiz eta tarteko saioen batean bakanen bat, isolatua, ediren daitekeen. Galdetzaileak 2:04:27 arte ez ditugu ikusten, baina agertzen diren unetik aurrera esan daiteke ia grabaketa guztietan ematen dituela haurrak (cf. 240-242).

- (230) **Amak.** (1:06:25), (1:08:05)
- (231) **Attak** ura bota. (1:08:19)
- (232) **Ko(z)ka moxo(r)rok** ko(z)ka? (1:09:18)
- (233) **Egoitzek** xúlua [soñua] in. (1:10:16)
- (234) **Miña** ha(r)tu ro **Unaik.** (1:11:13)
- (235) **Xole(ls)**" jan (d)o. (2:01:08)

9. *Xoltsakur* baten izena da. Hortaz, loturazko bokalak salatzen du ergatiboa dela.

- (236) **Attak** epur(d)in ematten dio. (2:02:21)  
 (237) **Nik** e(re) bai. (2:00:25/4)  
 (238) **Xuk** hola paruko? (2:01:08)  
 (239) Baxkaria patu b(eh)ar (d)ut eta **nik. ni(k)** baxkaria patu  
 b(eh)ar (d)ut. (2:04:00)  
 (240) Gehio **xenek?** (2:04:27)  
 (241) **Xere(k)** [zeñek]? (2:05:11)  
 (242) Hemen **xene(k)** xikindu do? (2:06:22)

Bianditzen baitan egitura honen ikasprozesua hasiera-hasieratik nolakoa den ikusiz, esan dezakegu nexka hau ergatiboa ibiltzen hasi berria zela grabaketak egiten hasi ginenerako, zeren ezegitezko hutsen kopuruari behatuz gero, ohar gaitezke adin honetan oraindik hutsak ugariak direla. Aipatutako hau oso nabarmena da 1:06tik 1:09:18ra arte, eta horrek adierazten digu zenbaitetan -*k* ergatiboko atzikia erabili arren beste hainbatetan ez dela gai oraindik beti zuzen emateko, hau da, oraindik ikaskuntzaren bigarren aroan dagoela bere-betea, eta adin hori gainditu ondoren hurrengo arora igaroko litzatekeela.

Bigarren aroko ezaugarritako hartu ditugun ezegitezko hutsez gain (cf. 243-244), corpus guztian zehar aurki ditzakegu, han-hemenka barreiatu eta kopuru guztien %10a baino portzentaia txikiagoan beti, beste zenbait ezegitezko huts (cf. 245-247).

- (243) **Biariz** [Bianditz] bota. (1:08:05)  
 (244) **Hau** moxorok(t)r(ri)pen. (1:09:18) ['honek moxorrok (egiten ditu) tripan']  
 (245) **Ttol** [Xoi] jan (d)o XXX. (2:01:08)  
 (246) **Ni** e(z)to bota. (2:02:05)  
 (247) **Ni** hau kendu b(eh)ar (d)ixut. (2:07:06)

Egitezko hutsen artean, dauden bietako bat corpusaren hasierakoa da, bigarren arokoa (cf. 248), eta bestea, aldiz, amaierakoa (cf. 249). Azken hau egitezko hutsen barnean sartu badugu ere, haurrak berak tartekatzen dituen *eh, eh* hitz makuluek adierazten digute etena dagoela hasieran esan duenaren izen aktiboaren artean eta ondoren heldu den esaldi iragangaitzaren artean, eta ez dela, beraz, morfosintaxiari dagokion hutsa, diskurtsoaren antolaketari dagokiona dela baizik.

- (248) Ex(t)a **Xolek**. (1:09:18)  
 (249) **Jon Na(r)ba(r)tek**, eh, eh, erzen (e)to(r)ri. (2:11:12)

### *Datiboa*

#### *Egoitz*

Datiboko atzikia 1:11:24an edireten dugu lehenengo aldiz, baina imitazio zuzen-zuzena besterik ez da, eta haur honek lau hilabete beranduago arte ez du behin ere ekoizten, bitarte horretan egiteko aukera izan duen arren. Alde honetatik nabarmenak dira haurrak aipatu dugun tarte horretan egiten dituen ezegitezko hutsak. Arzera 2:03:14 adinarekin ematen hasten denean emankortasunarekin erabiliko du atziki hau, saio horretatik aitzina ondorengo ia guztietan agertuko baitzaigu (cf. 250-255), eta gainera ez du (ez)egitezko hutsen alerik eginen.

- (250) H: Attak zeñeri eman dio? Azeituna, zeñeri eman dio attak?

- E: Egoitxe(r)i.**  
**H: Gehio zeñeri?**  
**E: Ibaieri.** (2;03;14)
- (251) **Taliali** [zaldiari] ta(x)-tax. (2;03;28)  
 (252) **Holeli** [horreri], **txuliali** [txuriari]! (2;03;28)  
 (253) Ka(x)-kax itten **ahu(n)t(z)ali** ta **beliari** ka(x)-kax itten  
 ta. **tal(d)iali** [zaldiari] ka(x)-kax. (2;05;09)  
 (254) Al(d)oa [ardoai] **niri** ez. (2;06;05)  
 (255) Lau(n)du **niri** o(l)oa itten. (*Puzlea eginez*). (2;07;04)
- Esan daiteke ezegitezko huts guztiak datiboaren aro ezgramatikalekoak direla, atzizkia zuzen ematen hasi ondoren, 2;03;14 adinetik aurrera, ez dugu bakarrik aurkitu eta.
- (256) **H:** 'Tatxis' zeñeri egin behar diozu?  
**E: I lau.** (1;09;01)
- (257) **E:** (E)kaRi ninia, **ni** kaRi **ni**.  
**H:** '(E)karri niri' (e)san!  
**E:** kaRi ninia **ni**. (1;11;24)
- (258) Matte **uau-uau**. (2;00;08)  
 (259) **I(b)ai** tta(s)-tta(s). (2;00;29)

### *Bianditz*

Datiboko marka duten lehenbiziko emanaldiak 1;09;18 eta 1;11;00 saio bitartean aurkitzen dira (cf. 260-263), eta bi hilabeteko isilunea igaro ondoren, atzera 2;01;08 adinaren beragertzen dira, hemendik aitzina saioro aurkitzen ditugula (cf. 263-265).

- (260) **Biai-pitxi** [Bianditzeri] ko(z)ka. (1;09;18)  
 (261) Hori **amonari** eman. (1;10;01)  
 (262) **Bia(n)ditzeri**. (1;11;00)  
 (263) **Egoitxeri** ez. (2;01;08)  
 (264) **Niri** [e]re bota, ama. (2;01;08)  
 (265) **Niri** 'kun' i(n) miña. (2;02;21)

Lehenbiziko ekoizpen horietan izen kategoriari soilik dagokien elementuei erantzen die nexka honek kasu marka, eta beranduxago beragertzen denean izenei ez ezik izenordainei eta erakusleei ere erantsia aurki dezakegu, era emankorrean gainera hemendik aurreko saioetan.

Ezegitezko hutsen artean ondoko bi hauek dira aurkitu ditugunak: bata (266) bigarren aroko hutsa izan daiteke, baina bestea (267) oso berandukoa da.

- (266) (B)ia(nd)itzeri ha(r)tu. Egoitz. Egoitz. ha(r)tu  
**(B)ia(nd)itz.** (1;10;16)  
 (267) '(Z)e morux, attona?' (e)xan txia(n) **ni**. (2;09;17)

### *Jabego genitiboa*

#### *Egoitz*

Lehenbiziko ekoizpenak 2;01;19 adinekoak dira, eta saio horretan izenordain ugari agertzen bada ere, ez dira denak helduen ereduari jarraikiz emanak (cf. 278-279),

bigarren aroan dagoelako seinale. Beste kategorietako hitzak ere adin honetan has-  
ten dira agertzen; izenak, adibidez, sistematikoki azalduko zaizkigu hemendik  
aurrera (cf. 280-284), eta izenordainak beranduxeago (cf. 285).

- (278) **Tulea** [zurca]. (2;01;19)
- (279) Hau **nenena** [nerea] ra [da]. (2;01;19)
- (280) Bai, **amana** ra [da]. (2;01;19)
- (281) **Attonana**. (2;02;18)
- (282) **T(r)enan** garñen (d)o. (2;03;00)
- (283) **Ibaina** e(s)kua. (2;03;14)
- (284) **Ekaitzena**. (2;03;28/2)
- (285) **Nilea**. (2;04;25)

Egoitzek egiten dituen ezegitezko hutsik gehienak egitura honen aro ezgramati-  
kalekoak dira (cf. 286-289); aro gramatikalera igarotzen denean, hots, bigarren arora  
igarotzen denean, segitzen du oraindik une batez hutsak egiten 2;04 arteraino (cf.  
290-291), baina ez da honelako huts mota gehiagorik aurkitzen hortik aurrera.

- (286) Hau **I(b)ai**. (1;10;27)
- (287) Nini **I(b)ai**. (1;11;11)
- (288) Hau **ama**, hau **(E)goix**. (2;00;08)
- (289) **Axona** [attona]. (2;01;06)
- (290) **Hori(c)k**. (2;02;02)
- (291) **Ibai**. (2;04;12)

Egitezko huts bat besterik ez dugu idoro, non haurrak genitiboaren atzikia bi  
aldiz errepikatzen baitu oso beranduko ekoizpen batean:

- (292) **Egoitxedadak** [Egoitxenanak] denak. (2;11;10)

### *Bianditz*

1;06;25ko grabaketan kausitzen dugu jada jabego genitiboko atzikia izenei erantsia  
(cf. 293-296), eta esan daiteke hortik aurrera ia saio guztietan agertzen direla. Ize-  
nordainak beranduxeago azaltzen dira, lehenbizikoa 1;10;16ko saioan eta 1;11;27tik  
aitzina sistematikoki gainerakoetan (cf. 297-299). Hurrenak agertzen erakusleak  
ditugu, eta azkenik galdetzaileak (cf. 300-301).

- (293) **Bia(n)di(t)zena**. (1;06;25/2), (1;08;05/2),  
(1;08;19/2), (1;10;01/3), (1;10;16/3),...
- (294) Hau **amana**. (1;06;25/2)
- (295) B(r)u(n)-b(r)u(n) **attana**. (1;09;04)
- (296) **Ekaitzen** bizik(l)e(t)an. (2;00;10)
- (297) Hori **xurea**, Egoitzena. (1;10;16)
- (298) **Xurea** heme(n) exta. (1;11;27)
- (299) **Nerea** ra. (2;01;08)
- (300) Tapa **honena** patzeko. (2;02;21)
- (301) **Zenera** ra [da]<sup>2</sup> (2;03;02)

Ezegitezko huts bakanak 2;04 arte egiten ditu Bianditzek, baina ez handik aurre-  
ra (cf. 302-304); egitezkoak, ordea, beranduxeago arte, 2;06 arte, hedatzen dira (cf.  
305-306).

- (302) Ni **Mikel(en)** bixik(1)etan e(z)to (e)rori. (2;01;08)  
 (303) Ni **xe(n)** gañen (n)o ni? (2;03;16)  
 (304) **Unai(n)** itxen txaboia erosiko ru[gu]. (2;04;00)  
 (305) **Amoñanana**. (1;06;25)  
 (306) **Ta amanan** don [non] da? (2;06;22)

*Leku genitiboa*

*Egoitz*

Leku genitiboko atzizkia nahiko berandu agertzen dela esan daiteke, lehenbiziko aztarnak 2;03;28an aurkitzen baititugu. Orain arte ikusi ditugun deklinabide atzizkietan ez bezala, hemen izenak dira beranduen agertzen, 2;10;11 adinarekin hain zuzen; bitarte horretan ez dugu bakar bat ere kausitu, eta corpus guztian bi besterik ez (cf. 307-308).

- (307) **Hol baxulekoa** [baxurekoa] la loloka [dordoka] ta. (2;10;11)  
 (308) **Xotokoa**. (2;10;26)

Erakusleak ugariagoak izan arren, orotara diren 45etatik 35 bi saiotan biltzen dira, eta gainerako 10ak beste bi saiotan. Esaterako:

- (309) Bai, hau **ho(r)koa** ra [da]. (2;03;28)  
 (310) Hau bai, **hebe(n)goa** la [da], eh! (2;03;28)  
 (311) Hau **hebe(n)goa** exta ta. (2;06;20)

Bestalde, *-ko* atzizkia daramaten beste hitz motak batzuk, kopuruaren aldetik nahiko garrantzizkoak, 'nolakotzaileak' dira (cf. 312-314). Aditzondoek ere har dezaketek atzizki hau (cf. 315-316).

- (312) Odoi(n) **holoko(k)**. (2;04;25)  
 (313) **Holokok** joka txal(d)iali. (2;05;09)  
 (314) Non da **holokok?** (2;05;23)  
 (315) **Geroko**. (2;04;25)  
 (316) Jaso, jaso heben **gerokok**. (2;07;04)

Atzizki honen erabileran ezegitezko hutsik ediren ez badugu ere, egitezko bat edo beste aurkitu ditugu (cf. 317-318).

- (317) **Buruko** bota lo. **Buruko** bota ro. (2;05;23)  
 (318) E: Bluxa: nolakoa, gorria?  
 E: Es! **Be(l)txakoa**. (2;06;05)

*Bianritz*

Genitibo atzizki hau dela eta, erakusleak dira lehenbiziko saiotik aurrera agertzen direnak (cf. 319-321), baina corpus guztian zehar arrunt modu irregularrean. Izeneetan ere, bat goiz samar agertzen bada ere—ez forma osoan gainera—, badirudi 2;01etik aurrera erabiltzen dela era emankorrean (cf. 322-325).

- (319) **Ho(r)koa**, no ta [non da]? (1;06;25)  
 (320) Non (d)a **hemen(g)oa?** (1;08;05/3)  
 (321) Non (d)a **hemen(g)oa?** (1;09;0-1)  
 (322) **Ahok(o)a** jan (d)ut. (1;10;01)  
 (323) **Hananikoa** [Hernanikoa]. (2;01;08)

(324) **Bekonenako** [Bekodendako] Jonek jo itten (d)io. (2;03;16)

(325) **Jon Bekodendakoa.** (2;04;14), (2;05;11)

Genitiboaren balioa ez baldin badu ere, 'nolakotzaileen' barranean bildu ditugu izenlaguntako erabiltzen diren *-k*odun hainbat ekoizpen (cf. 326-327). Galdetzaileak beranduago aurkitzen ditugu (cf. 328-329); eta beranduago oraindik aditzondoei erantsia (cf. 330-331)

(326) Gehio ka(r)riko **holokoa.** (2;00;10)

(327) **Holokoa.** (2;01;08), (2;01;22), (2;05;11/2), ...

(328) **Nongoa?** (2;05;11), (2;05;25), (2;07;06)

(329) **Nongo Jon?** (2;05;11)

(330) Hará **atzokoa.** (2;06;08)

(331) Jaso **geroko.** (2;09;04)

Biantitzen corpusean, Egoitzenean bezalaxe, ezgitezko hutsik ez dugu aurkitu, baina egitezkoak uste baino gehiago. Hona batzuk erakusgarritako:

(332) Hola ez, **holako** patu, hola. (2;03;16)

(333) Jonek **holako.** (2;05;11)

(334) Niri ma(r)gotu **holoko** bexelakoa. eh. (2;07;19)

### *Inesiboa*

#### *Egoitz*

Bi une desberdin bereiz daitezke kasu honen erabilera dela eta, alde batetik 1;11;11 baino lehenagoko aroa, eta beste aldetik adin honen ondorengoa. Aipatutako grabaketa baino lehenagoko ekoizpenetan zenbait erakusle eta izen agertzen dira, baina imitazio zuzenaren ondorio besterik ez direla esan behar da, ez baita eskuarki inesiboari dagokion atzizkia behar bezala erabiltzen, ikus bestela ondoko adibide hauek:

(335) H: Non duzu miña?

E: **Hau.** (1;09;01/3), (1;10;13/2)

(336) **Lale(n)** [lane(n)]. (1;09;01/2)

(337) (*Balkoirantz doala, kanpora seinatutuz*) **Hau** mu. (1;10;13)

(338) H: Atta nora jo[a]n da?

E: **Lalen** [lanen]. (1;10;27)

Atzizki hau emankortasunarekin eta testuinguruak eskatzen duen bezala ibilia 1;11;11tik aurrera aurkitzen dugu. Aro aurregramatikal hau igaro ondoan, hemendik aurrera, agertzen diren kategoriak agertzen direla, arruntean –era sistematikoan– erabiltzen dira. Horrela, 1;11;11tik aurrera leku erakusleak grabaketa guztietan agertzen dira (cf. 339-341). Ber gauza gainera daiteke 2;01;06 grabaketatik aurrera sistematikoki aurki daitezkeen izenez ere (cf. 342-345). Lehenbiziko galdetzailea 2;00;08 adinarekin azalduagatik, saio gehienetan 2;01;19tik aurrera baizik ez da agertzen (cf. 346-348).

(339) Go(l) **(he)men.** (1;11;11)

(340) Lolo **han.** (1;11;24)

(341) Behia, **hemen** behia. (2;00;08)

(342) **Lanen.** (2;01;06)

- (343) **Balkoien.** (2;01;19)  
 (344) **Ta puttun** [putzun] *atta.* (2;02;18)  
 (345) **Itxen** (d)u(t) *motoa.* (2;03;28)  
 (346) **Ro ra** [non da]? (2;00;08)  
 (347) **A(s)toa, a(s)toa non** (d)a? (2;01;19)  
 (348) **Bulua** [burua] **non** (d)a? (2;02;02)

Pluralean forma gutxi aurkitu ditugu, eta berantiarak dira gainera ondoko adibi-  
de hauetan ikus daitezkeenez:

- (349) **Ga(l)txatan** *bai.* (2;06;20)  
 (350) **Begitan** *ex, eh.* (2;09;00)

Ezugarri nagusienak azaldu ondoren, lehenbiziko zatiko ekoizpenak alde bate-  
ra utziz, aro ezgramatikaleko hutsak baitziren, bigarren zati honetako –aro gramati-  
kaleko– ezegitezko hutsak ondoko hauetara murrizten dira (denak *non?* galderaren  
erantzun):

- (351) **Ha(n)ka.** (2;00;08)  
 (352) **Tita** [tripa]. (2;01;06)  
 (353) **Salou.** (2;02;18)

#### *Bianditx*

Bianditzen corpusean izenak, erakusleak eta galdetzaileak lehenbiziko grabaketa-  
tik aurrera agertzen dira eta saio guztietan aurki daitezkeela esan daiteke (cf. 354-  
366). Azpimarratu nahi dugu inesiboan gehien erabiltzen den hitz kategorien artean  
erakusleak direla ugarien. Egoitzen corpusean bezala. Konturatu, gainera, forma  
indartuak agudo samar erabiltzen hasten dela nexka hau, lehenbizikoa 1;08;05 adi-  
narekin ematen baitu (361), eta maizago, saioz saio modu sistematikoagoan, 2;02;05  
adinetik aurrera aurkitzen dugu.

- (354) **Xiran** [sillan] *ttette* ['txupete']. (1;06;25)  
 (355) **Nonen** [komonen]. (1;07;22/2)  
 (356) **Hori lu(r)ren** *ibiltzeko.* (1;10;16)  
 (357) **Hanken** (d)u(t). (1;11;13)  
 (358) **Ñañan itten lu(r)ren.** (2;01;22)  
 (359) **Patu hor.** (1;06;25)  
 (360) **Hemen** *da kut(x)area.* (1;07;22)  
 (361) **Ttaka (he)me(nt)xe.** (1;08;05)  
 (362) **Hala pu(n)pa han.** (1;10;16)  
 (363) **Non** (d)a? (1;06;25)  
 (364) **Non** (d)a *hemengoa?* (1;07;22)  
 (365) **Non** (d)a, *ama, papera?* (1;08;19)  
 (366) **Bestea non** (d)a? (1;09;04)

Izenen pluraleko forma bat 1;09;18 adinarekin aurkitzen dugu, baina berandua-  
go hasten da modu emankorreak erabiltzen (cf. 367-370).

- (367) **Ex, boxotan** [besotan]. (1;09;18)  
 (368) **E(s)kaye[ra]tan.** (2;02;21/3)



(369) Bai, **iañauteritan** afal(d)u b(eh)ar (d)u[gu] tabe(r)nan.  
(2;07;19)

(370) **Exkutan.** (2;10;01)

Bigarren aroko ezegitezko hustzat jo ditzakegunak 1;07;22tik 2;01;08rako bitarte horretan egiten ditu Bianditzek, eta honatx hauen arteko batzuk zein diren:

(371) Ipul(d)i(n). (1;07;22)

(372) P(l)axa(n)(e)uria (ar)i (d)o. (1;11;27)

(373) B(r)un-b(r)un(en). (2;00;25)

(374) Epulli(n) ez. (2;01;08)

### Adlatiboa

#### Egoitz

Adlatibo atzizkia 2;01;06 adinarekin aurkitzen dugu lehenbiziko aldiz izenei itsatsia Egoitzengan. Agertzen den unetik aurrera ia saio guztietan aurki daitezke atzizki honen aztarnak izenetan (cf. 375-379). Ohartu euskalki honetan *goi* eta *behe* izenen adlatibozko formak *gotti* eta *betti* direla, eta itxuraz *-ra* atzizkirik ez izan arren, adlatibozkoak direla, jakina (cf.377). Bestalde, diogun pluraleko forma bakarra 2;07;17ko saioan aurkitu dugula (cf. 380).

(375) **P(D)axara.** (2;01;06/2)

(376) **Txotxora** [txokora]. (2;01;19)

(377) **Gotti** ta **betti.** (2;02;18)

(378) **Baxulala** bota. (2;03;00)

(379) **HeRira.** (2;04;25/2)

(380) Oxaba K(u)an Goxe, **kakatara** [galtzatarra] pixa in (d)ut.  
(2;07;17)

Beste kategoriei dagokienez, erakusleren bat (2;04;25 eta 2;05;09 saioetan) edo galdetzailerren bat (2;02;18) goiz samar agertzen bada ere, badirudi 2;09;15 adinetik aurrera dutela saio gehienetan ateratzeko joera (cf. 381-386).

(381) **Holela** [horrera]. (2;04;25)

(382) Bota **holala** [horrara]. (2;05;09)

(383) ... i(n) b(eh)al (d)o **honela** [honera] ekali [ekarri] pilota.  
(2;09;15)

(384) Totela [traktorea] **nora?** (2;02;18)

(385) Oxaba G(u)a(n) Goxe **lola** [nora] jo(n) da? (2;09;29)

(386) **Lora** [nora]? (2;10;26)

Adlatibo kasuan izen bizidunekin *-e)ngana* atzizkia erabiltzen da. Egoitzen emaldietan 2;02;18 saioan agertzen dira lehenengo aldiz (cf. 387-388), eta hurrengoak sei hilabete beranduagoko saiotik aurrera (cf. 389-390)

(387) **Ibaingada.** (2;02;18)

(388) **(I)bai(n)gana.** (2;02;18)

(389) **Egoitxe(n)gana** no [diho[a]?]. (2;08;00)

(390) Gelo laxte(r)ka to(rri)ko la **hau(n)di(n)gana.** (2;09;15)

Izenen artean bada ekoizpen bat guztiz berezia. Berezitasuna ez dagokio adlatibo atzizkiari, hondarki guztiari baizik. Honela ematen du haurrak:

- (391) Go|a|xen, **itxatxoala** [itsasoara]. (2;07:17)  
 Ezegitezko hutsik gehienak egitura honen aro ezgramatikalekoak edo gramatikalizazio hasieraren garaikoak dira:
- (392) H: 'Ni Malenera' (e)san!  
 E: **Ni Mala**. (2;00:08)
- (393) H: Nora eskapatu za|ra|?  
 E: **(He)men**. (2;01:06)
- (394) H: Nora jo|a|n giñan?  
 E: **Salo(u)**. (2;02:02)
- Egitezko hutsak oso berandukoak dira, eta emanaldi gehienetan adlatibo atzizkia aurkitzen dugu errepikatua (cf. 395-396). Eta hirugarren aroko huts garbia da (397) adibidea, haurrak gainorokortu egin baitu adlatiboaren araua *goi(a)* izenetik abiatuz.
- (395) Hau **baxurerara** bota b(eh)ar (d)ut. (2;10:11)
- (396) Gixonak etol(i) b(eh)al (d)o kotxen **belasolala** [belasorara]. (2;11:10)
- (397) Hola bota t(r)apua **goiala** [goiara]. (3;00:07)

*Biandüz*

Beste hainbat deklinabide atzizki bezala, adlatibo atzizkia daramaten izenkiak ere lehenbiziko saiotik aurrera ediren ditzakegu. Esan daiteke izenak ia grabaketa guztietan agertzen direla (cf. 398-401). Pluraleko formez diren bezainbatean, 2;00:10 saioko lehen ekoizpen goiztiarraz landara, 2;04:27tik aurrera errazago ediren daitezke (cf. 402-404). Izenki bizidunak adin bertsutik, 2;04:14tik, aitzina topa ditzakegu han-hemenka (cf. 405-406), eta bitxia gerta dakigukeen arren, 2;07tik aurrera ez da ale bat ere idoroten.

- (398) **Baxurera**. (1;06:25)
- (399) Bota **rarera** [lurrera]. (1;07:22)
